

2021eko iraila

# Udaberri 2024

Bizikidetza, Giza Eskubide eta  
Aniztasunaren Plana



**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLITICAS SOCIALES



Bizikidetza, Giza Eskubide eta Aniztasunaren Plana  
2021eko iraila

Sarrera	7
Aurrekariak	7
Testuingurua	8
1. Hurbileko testuingurua Euskadi 2021: aukerarako leiho bat	
2. Testuinguru orokorra: argiak eta ilunak	
<b>A) Egonezina</b>	
1. Giza eskubideak arriskuan	
2. Krisi ekonomikoaren eragin etengabea	
3. COVID-19 pandemiaren ondorioak	
4. Nazioarteko ordena disfuntzionala eta erantzuteko gaitasun eskasa duena	
<b>B) Itzaropena</b>	
1. Nazioarteko agendaren feminizazioa	
2. Nazioarteko adostasun aipagarriak: Agenda 2030 eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)	
Printzipioak eta helburuak	12
Eremuak	13

## 1. Bizikidetzaren Euskal Agenda 15

### 1.1. Biktimei aintzatespen legala, instituzionala, soziala eta morala ematea

*A1 Terrorismoaren biktimei aitortzea eta erreparazioa emateko politiketan aurrera egitea eta politika horiek sendotzea*

*A2 Aintzatespen legala, instituzionala, soziala eta morala ematea motibazio politikoaren ondoriozko indarkeria-giroan gertatu ziren giza eskubideen urratzeen eta beste bidegabeko sufrimendu batzuen biktimei, 12/2016 Legea garatzeko esparruan*

### 1.2. Iraganari buruzko gogoeta kritikoa

*A3 Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Legea onartzeko ahalegina egitea, eta hura ezartzen lider izatea*

*A4 Memoria irekia, inklusiboa, kritikoa eta etikoa sustatzeko ekimenak, programak eta proiektuak garatzea*

### 1.3. Espetxe-politika bizikidetzarako aktibo gisa

*A5 Birgizarteratze- eta birsozializazio-printzipioetan oinarritutako euskal espetxe-eredua garatzea*

### 1.4. Horizonte bera denontzat: elkarrenganatzeko gunea

*A6 Bizikidetzaren kultura bultzatzeko ekimenak eta topaguneak taxutzea*

## 2. Giza Eskubideen Agenda Globala 24

*A7 Herrialdeko politika guztiei giza eskubideen ikuspegia ematea*

*A8 Herritarrak prestatzea, sentsibilizatzea eta ahalmenez hornitzea, giza eskubideekiko konpromisoa aktibatzeke*

8.1. Ikerketa / Txostenak

8.2. Prestakuntza, hezkuntza, ahalduntzea: gaztedia kontziente, parte-hartzaile eta eraldatzailea sortzeko bidean

8.3. Sentsibilizazioa: herritartasun kritikoa eraiki

*A9 Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen (EESK) agenda sortzea*

*A10 Nazioarteko izaera eta proiektzioa duten giza eskubideei buruzko politika eta programa espezifikoak bultzatzea eta horien jarraipena egitea*

### 3. Aniztasunerako Euskal Agenda 35

*A11 Euskadin tratu-berdintasuna areagotzea eta diskriminazioari aurre egitea*

*A12 Sexu- eta genero-orientazioaren arabera aniztasunaren kudeaketa positiboa, eta LGTBI kolektiboaren diskriminazioaren aurkako borroka*

*A13 Kulturako, arrazako eta jatorri etnikozko aniztasuna onerako kudeatu, eta bazterkeriaren kontra borroka egin*

13.1. Ijito-herria erabat integratu eta gizartean parte hartzen lagundu

13.2. Migratzaileen erabateko sustapena eta parte-hartzea

*A14 Erlijio-aniztasuna onerako kudeatzea eta erlijio-arrazoientzako diskriminazioaren aurka borrokatzea*

*A15 Adinagatiko aniztasunaren kudeaketa ona egitea eta adinekoen, haurren eta nerabeen bazterkeriaren aurka borrokatzea*

*A16 Dibertsitate funtzionalaren kudeaketa ona egitea eta bazterkeriaren aurka borrokatzea*

Plana kudeatu, koordinatu, gainbegiratu eta ebaluatzea. Gardentasuna eta kontuak azaltzea. 43

I. Eranskina: Jarduera programa 45



## Sarrera

### Udaberri.

Hitz horrek durundi egiten du, oroimena pizten du, amets egitera eta ortzi-muga berriak marraztera gonbidatzen du. Udaberriak argia esan nahi du, itxaropena, askatasuna. Kolorea, alaitasuna, natura. Bizitzaren berpizkundea.

Euskadin, udaberri bat merezi dugu, oparotasunez betetako udaberri bat. Negua luzea izan da, oso oso luzea; gogorra, oso oso gogorra. Guztiontzat eta, oso bereziki, biktimentzat.

Hainbat hamarkadaz osatutako negu gogor eta luze bat utzi dugu atzean. ETaren terrorismoaren eta beste indarkeria-adierazpen batzuen zikloa amaitzean, egunsenti berri bat zabaldu da. Eta egunsenti horrek beste udaberri bat datorrela iragartzen du.

Urtaroak bata bestearen atzetik etortzen dira, berez-berez. Udaberri hau ez da berez etorriko; konkista bat izango da, guztion konkista. Jarrera berri bat eskatzen duen konkista. Jarrera berria, lehenik eta behin, mende erdiz terrorismoaren eta indarkeriaren gaineko erantzukizun zuzen edo zeharkakoa eduki dutenen aldetik. Udaberria memoria ere bada, egia, autokritika zintzoa eta benetakoa indarkeriaz jokatu duten eta indarkeria babesteko kultura politikoak praktikatu dituzten horien aldetik. Negua amaitu eta egunsenti berri bat datorren honetan, aitortza behar da: bidegabea izan zen.

Eta udaberriak apustu irmo bat ere badakar giza eskubideen berme eta babes eraginkorra lortzeko –pertsonek guztien eskubide guztiena–; apustu irmoa aniztasun politikoa eta aniztasun soziala sustatzeko gure bizikidetzaren ereduaren oinarri moduan; apustu irmoa aukera-berdintasuna indartzeko eta inor atzean ez uzteko.

Udaberria freskoa da, brisa, urdina, berdea. Udaberri 2024, hain zuzen ere, hori berori da: pertsonaren duintasuna, terrorismoa eta indarkeria izan diren bidegabekeriaren deslegitimazio erradikala... aniztasunean oinarritutako bizikidetzaren.

## Aurrekariak

2017ko urriaren 10ean, Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak proposatuta, «2017-2020rako bizikidetzaren eta giza eskubideen plana: gizartea elkartzea helburu, enpatiaren aldeko hautua» plana onartu zuen Gobernu Kontseiluak. Plan hori Eusko Jaurlaritzaren bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko politika publikoak eta jarduketaren programak planifikatzeko eta zuzentzeko dokumentu estrategikoa izan da XI. Legegintzaldian, eta X. Legegintzaldiko 2013-2016ko Bake eta Bizikidetzaren Planaren ondorengoa izan da.

2017-2020 Planaren esparruan, Aholku Batzordeak (uztailaren 29ko 157/2014 Dekretuaren bidez sortuak) prozesu bat hasi zuen 2018ko uztailaren 6ko bileran, giza eskubideen etorkizuneko erronkei buruzko gomendioen dokumentu bat mamitzeko. Prozesu hori errazteko, ibilbide aski goretsia duten bi erakunde independenterik eskatu zitzaizkien txostenak: Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuari eta Gatazkei eta Ekintza Humanitarioari buruzko Azterlanen Institutuari (IECAH). Lehenengoak «Giza Eskubideen erronkak maila globalean, datozen 20 urteetan» txostena prestatu zuen, eta IECAHek «Euskal gi-

zartearen egungo lehentasunak giza eskubideen arloan» txostena. Aholku Batzordeak 2019ko uztailearen 10ean egindako bilkuran aurkeztu zituzten bi txostenak.

Eztabaidan jarduteko prozesuaren abiapuntua izan ziren txostenok; horien edukia lantzeko hiru bilera egin zituen Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren Aholku Batzordeak 2020an (urtarrilaren 16an, eta otsailaren 13an eta 27an). Eztabaida horren ondorioz, Kontseiluak beste txosten bat taxutu zuen: «Sintesiko txostena: Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren Aholku Batzordearen gomendioak».

Era berean, 2020ko ekainean, Gatazkei eta Ekintza Humanitarioari buruzko Azterlanen Institutuak (IECAH) beste dokumentu bat prestatu zuen: «Eusko Jaurlaritzaren 2017-2020ko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren balorazioa, XI. Legegintzaldiaren amaieran».

## Testuingurua

Aurreko atalean aipatu ditugun hiru txostenak, hausnarketa-prozesua eta Aholku Batzordearen gomendioen dokumentua, eta «2020-2024 Gobernu Programa. XII. legegintzaldia. *Euskadi martxan*»<sup>1</sup>, horiek guztiak, eskuartean duzun Eusko Jaurlaritzaren 2021-2024 Bizikidetzaren, Giza Eskubideen eta Aniztasunaren Plan honen abiapuntua dira (aurrerantzean, Plana). Abiapuntu horri, jakina, testuinguru soziopolitiko eta ekonomikoaren bilakaeraren gaineko azterketa gehitu behar zaio, bai dimentsio globala lantzen duena, bai Euskadiko dimentsio bereziak aztertzen dituena.

### 1. Hurbileko testuingurua Euskadi 2021: aukerarako leiho bat

Euskal gizarteak 2021ean egindako diagnostikoak errealitatea eta itxaropena jaso behar ditu. Baditugu konpondu gabeko kontuak eta konpontzen ari garenak, baina bide onean goaz. ETak «borroka armatuaren amaiera» (2011eko urrian) eta armagabetzea eta desegitea (2018ko maiatzean) iragarri zituenean, *de facto* amaitu zen indarkeria terroristaren zikloa eta inflexio-puntu bereziki garrantzitsua hasi zen euskal historian. Izan ere, ia mende erdian zehar ETA eta indarkeriaren bidez proiektu politiko jakin bat ezartzeko zuen asmoa izan ziren gure herrialde honetako eskubideen eta askatasunen urratzaile nagusienak.

ETAren amaierak garai berria, egoera berria eta erronka berria ekarri zituen: pluraltasun eta aniztasunean oinarritutako bizikidetzeta. Gaur egungo errealitatea –hondatutako bizikidetzeta– abiapuntutzat hartuta ari gara erronka berri horri aurre egiten, eta horrek eskatzen digu oraindik konpondu gabe ditugun kontuei eta konpontzen ari garenei ausarki aurre egitea. Besteak beste, lau konturi: 1) Biktimei aintzates-

---

<sup>1</sup> 2020-2024 Gobernu Programaren Pertsonak izena duen II. ardatzeko 15 Bizikidetzeta eta Giza Eskubideak jarduketa-arloak honako hau jasotzen du hitzez hitz: «2011ko urriaren 20an, behin betiko bukatu zen jarduera terrorista eta, horren ostean, zehazki, 2018an, ETA desegin zen. Horrela, Euskadik atzean utzi egin du terrorismo, indarkeria eta banaketako iragan bat. Une egokia da bidezko bizikidetzeta baketsua eta inklusiboa finkatzeko asmoa partekatzen dela berresteko, eragindako kaltearen bidegabekeriaren memorian, giza eskubideen errespetuan eta pluralismoan oinarrituko dena. Testuinguru honetan Eusko Jaurlaritzaren bizikidetzeta-proiektua bizikidetzeta eta giza eskubideen plan baten bidez bideratuko da. Plana bi eremu handi hauctan egituratuko da: bizikidetzarako euskal agenda eta giza eskubideen agenda globala. Giza duintasunaren eta giza eskubideen errespetua, promozioa eta defentsa plan horren printzipio gidariak izango dira, zehazki, ukazkina den printzipio etiko honetatik abiatuta: ez zen egon eta ez dago inolako arrazoirik pertsonen duintasuna, osotasuna eta bizitzeko eskubidea ezeztatzeko».



pen legala, instituzionala, soziala eta morala ematea, biktima guztiei –ETAren terrorismoak sortu dituen biktimei eta motibazio politikoaren ondoriozko indarkeria –giroan gertatu ziren giza eskubideen urratzeen eta beste bidegabeko sufrimendu batzuen biktimei–; 2) Denon memoria baten eraketa soziala, egiaren eta justiziaren printzipioak oinarritzat hartuta eta iraganari buruzko hausnarketa kritikoa eginez –kontuan izanda hausnarketa kritiko horrek bereziki hartzen dituela ETA eta haren unibertso politiko– ; 3) Bizikidetzaren kultura bultzatzeko topaguneak sortzea; eta 4) Espetxe-politika egokitzea. Konpondu beharreko eta konpontzen ari garen kontu horiek dira plan honetan Bizikidetzaren Euskal Agendaren ardatza.

Itxaropenez betetako begirada hori kezkatuta moduan geratzen da oraindik gure inguruan sortzen ari diren indarkeria, intolerantzia eta sektarismo adierazpenen ondorioz. Pintadak, mehatxuak, eraso fisikoak eta hitzezko erasoak... oraindik sektore jakin batzuetan ikusi daitezkeen indarkeriaren kultura baten adierazpenak dira, baina kultura hori bateraezina da bizikidetzaren demokratikoarekin. Aldi berean, ikuspegi hori kritiko agertzen da ETAko presoei egiten zaizkien «ongietorri» publikoen aurrean; izan ere, gizatasunetik harago, jendearen eta familiaren goxotasuna adierazteko diren arren, ongietorriak *de facto* indarkeriaren kultura politikoaren gorespen sinbolikoa eta biktimen bidegabekeria eta berbiktimizazioa dira.

Nahi dugun etorkizun itxaropentsua lortzeko, betiere alderdi desberdinen bizikidetzaren eta kontratu soziala aintzat hartuta, berme onenak honako hauek dira: indarkeriaren kulturaren deslegitimazio politiko eta sozial erradikala berrestea ekintza politikorako estrategia gisa; aniztasuna zaindu eta bultzatzea euskal DNA politikoaren osagai gisa; eta denen eskubideak benetan babesten direla zaintzea –batez ere biktimenak eta sektore ahulenak–.

## 2. Testuinguru orokorra: argiak eta ilunak

### a) Egonezina

#### 1. Giza eskubideak arriskuan

Teknologiaren eta adimen artifizialaren garapenak eta inpaktuak, klima-aldaketak eta ingurumen-krisiak, giza mugikortasunak eta migrazio globalek, bortxazko lekualdatzeak eta asilo eta babesleku beharrek, krisi humanitarioek, askatasuna edo segurtasuna dialektikaren ondorioek, nazioarteko terrorismoak, fundamentalismoen eta populismoen gorakadak, intolerantziak, istiluen eta gorroto-diskurtsoen ugaritzeak, arrazakeriak, xenofobiak eta egungo munduko beste joera kezagarri batzuek erronka eta desafio global berriei erantzun beharrean jarri gaituzte. Erronka eta desafio horiek, teoriarik aukera ona izan badaitezke ere, mehatxupean eta ziurtasun gabe utzi dituzte giza eskubideak.

Kolokan dago giza eskubideen etorkizuna. Globalki begiratuta, ez dira inondik ere parez parekoak giza eskubideak isiltzeko, ikusiez in egiteko, ahultzeko, atzeratzeko, urratzeko eta bortxatzeko egiten den indarra eta horiek babesteko, defendatzeko, benetan aitortzeko, bultzatzeko eta indartzeko egiten den indarra. Nazioartean eta Europan, nabarmen, atzera egin da giza eskubideen defentsan eta sustapenean. Eta, hori nahiko ez balitz, gaur egun eskubide «klasikoak» (zibilak eta politikoak) ez ezik, bestelako batzuk ere aldarrikatzen ari gara, hala nola, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak, eta garatzeko makina bat oztopo duten eskubide berriak.

## 2. Krisi ekonomikoaren eragin etengabea

2008ko krisi ekonomikoaren ezta zikloa aldarazi zuen, baina, horrez gain, ordurako denak emanda zegoela ezagun zuen eredu ekonomikoaren oinarriak zalantzan jarri zituen. Maila eta alde guztietatik artikulatutako erantzunak austeritatearen mantra zerien neurriak ekarri zituzten, bata bestearen atzetik. Horren eraginez, alde batetik, herrialde batzuei eta bertako kolektibo batzuei arretarik ez zitzaien eman aurrerantzean, eta marjinazioak eta bazterkeriak gaina hartu zuten. Bestetik, desberdintasun-arrailak etengabe handitzen darrai.

Eta gainera, nahiz dagoeneko badiren hamar urte baino gehiago Errezesio Handia izan zenetik, ez dugu lortu norabidea aldatzerik. Bien bitartean, sistema demokratikoa eta ongizate-estatuaren oinarriko zutabeak kolokan jartzen dituzten aukera populista, xenofobo eta arrazista nabarmenen gorakada begi-bistakoa da.

## 3. COVID-19 pandemiaren ondorioak

Arriskuaren gizartean bete-betean murgilduta gaudenez, COVID-19aren pandemiaren larritasunak are gehiago ikusarazi du mundu globaleko biztanle garenaz, gure etxeetatik milaka kilometrora gertatzen denak ere eragina duela gudan. Eta, aldi berean, jendearen osasunerako ondorio txarrak lehenbailehen gaintzeko eginahaletan gabilta. Pandemiak agerian utzi du gure gizarteak hauskorrak direla oso, eta sistemikoki eragiten ari zaigu, gure bizitzaren alderdi guztietan: osasunean, ekonomian, elkarrekin bizitzeko eran... Bestalde, are premiazkoagoa dugu orain elkarrekiko lankidetzari lekua ematea, gaitasun publikoak eta pribatuak batuz eta hitzez hitz onartuz «inor ez dagoela salbu gaintzeko guztiak salbu dauden arte».

Hala ere, egiaztapen teoriko horrek ez du korrelatu praktikorik izan, pandemiari nazioartean eman zaion erantzunak agerian jarri duen desoreka izugarriari erreparatzen badiogu; nabarmenena, txertoak eskuratzeko aukera. Urtebete baino lehen txerto eraginkorrak izateko egindako ahalegin zientifikoa itzela izen da, baina, horrekin batera, nahitaez aipatu behar da oso desorekatua dela txertoak nola banatzen diren munduan. Gainera, globalizazioak dakartzan arriskuak prebenitzeko kulturarik ez dago, ezta aurreikusten errazena prebenitzeko ere: klima-krisia eta ingurumen-krisia.

Globalki nahiz tokian-tokian, pandemiak, gainera, kolektibo ahulenen babesa, elkartasuna eta gizarte-kohesioa ekarri dizkigu.

## 4. Nazioarteko ordena disfuntzionala eta erantzuteko gaitasun eskasa duena

Aspalditik ia denak ados gaude II. Mundu Gerran sortutako nazioarteko ordena falta dela munduko gobernantza zuzentzeko eta gaur egungo mundu globalizatuaren beharrei ondo erantzuteko. Gaur egun indarrean dauden eskema eta erakundeek gero eta doitu ezin handiagoa dute, eta ezin dute gizartearen eskaera eta itxaropenei behar bezala erantzun, jendea gero eta ahalmen handiagoa bereganatzen ari denez; eta aldi berean, desberdintasun-arrailak –bereziki emakumeen artean–, krisi klimatikoa eta era guztietako indarkeriak ugartzen ari dira, arriskua ere ugartuz.

Hala ere, oraindik ez da lortu akordio global berri bat taxutzea, nazioarteko ordena berri bat sortuko lukeena, multilateralismo efektiboa eta dagoeneko aski

diagnostikatuta dauden arrisku eta mehatxuei aurre egiteko hainbat dimentsioko erantzunak oinarri hartuta. Multilateralitatearen eraketa instituzionala ahultasun bereziko fasean dago.

Eta horrekin batera, «izuauren aurkako gerra» izen okerra jarri diogun gerra horrek, itsu-itsu jarri gaitu segurtasunaren bila, jendearen nahiz gizartearen eremu gero eta gehiagotan. Horrela, batzuetan argi eta garbi definitu gabeko mehatxu eta arriskuei erreferentzia eginez nonahi eta noiznahi, azkenean biderkatu egiten dira herritarrak kontrolatzeko mekanismoen mota eta kopurua, eta azkenean, gizarte demokratikoen eta gobernantza-sistema sendoen bereizgarri diren eskubide eta askatasunen esparrua murrizten ari da.

Segurtasunaren eta askatasunaren arteko etengabeko tentsio horretan, oraingoz behintzat lehenengoak sinesgarritasun handiagoa duela dirudenez, arriskua dugu segurtasunaren inguruko gogoetak beste eremu batzuk ere kutsatzea, baita gogoeta hori ez dagokien eremuak ere. Ezinbestekoa da, beraz, oztopo eraginkorrak sortzea giza eskubideen esparrua ez ahultzeko, eta zuzenbide-estatua nahiz pertsonen intimitatea eta pribatutasuna babesteko.

## b) Itzaropena

### 1. Nazioarteko agendaren feminizazioa

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna oraindik ez da erreala, emakumeek egiturazko indarkeria pairatzen jarraitzen dutelako soilik emakume izateagatik. Berdintasuna prozesu bat da. Bide bat da, eta asko geratzen da oraindik egiteko bide horretan. Baina mugimendu feministen aldarrikapenei eta borrokari esker, aurrerapen garrantzitsuak ari dira egiten. Berdintasuna denon ardua da orain, eta etorkizunean are gehiago.

Gaur egungo errealitatearen ezaugarri berritzaile eta indartsuenetako bat da bizitza publiko eta pribatuaren esparru guztietan emakumeen agerpena aktiboa dela. Haien kopurutik harago, gainera, gizateriaren erronkei aurre egiteko balio erantsi berezia duten ahots, ikuspegi eta sentsibiltateak sartu dira. Garai berriak emakume-aurpegia dakar.

### 2. Nazioarteko adostasun aipagarriak: Agenda 2030 eta Garapen Jasangarri-rako Helburuak (GJH)

2030 Agenda eta GJHak nahitaezko erreferentzia-esparru globala dira, mundu bidezkoago, gizatiarrago eta jasangarriagoa iristeko bide-erakusle direnez. Horri gehitzen badiogu gero eta adostasun handiagoa dagoela aldaketa klimatikoaren aurkako Parisko Akordioaren inguruan, aitortu beharrekoa da aurrerapen ukaezina direla bai Agenda bai helburu horiek, eta horrek erakusten du balitekeela akordioak lotzea gizateriaren benetako arazoei aurre egiteko.

Giza eskubideez elikatzen diren erreferentziak dira, eta, beraz, edozein arduradun politikorentzat edo eragile pribaturentzat, NBERen idazkari nagusiak adierazi bezala, 2030 Agenda «plataforma ezin hobea da giza eskubide guztiekiko konpromisoa erakusteko». Bestalde, asko dira eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumeneko eskubideekin zuzeneko lotura duten GJHak; horrek esan nahi du helburuok betetzeak giza eskubideak errespetatzeko eta sustatzeko balio duela. Ezinbestekoa da garapen jasangarria sustatzea giza eskubideen bidez.

«Euskal Ekarpena Garapen Jasangarriko 2030 agendari» dokumentua, XI. Legegaldian onartutakoa, Eusko Jaurlaritzak Agendarekin dituen konpromisoen isla zehatza da.

Legegintzaldi honetan Trantsizio Sozialerako eta 2030 Agendarako Idazkaritza Nagusia sortu izanak, zalantzarik gabe, bultzada eman dio berriro Eusko Jaurlaritzak 2030 Agendarekin duen konpromiso irmoari, eta konpromiso horretatik dator Bizikidetzaren, Giza Eskubideen eta Aniztasunaren Plan hau ere.

Konpromiso horri lotuta, hain zuzen, Gobernu Kontseiluak «2030 Agendako lehentasunen euskal programa. 2021-2024 Jarduketa-plana. Kontratu soziala eta proaktibitatea Garapen Jasangarriaren Helburuetarako» izeneko dokumentua onartu zuen ekainaren 29an. Izan ere, programa horren 4. ardatzean, «Bakea. Giza Baliabideak» izenekoan, konpromiso eragile bera jasotzen da: «Giza duintasunaren errespetuan oinarritutako mundu baketsu bat lortzen laguntzea, bizikidetzaren bidezko eta inklusibo baterako»; eta proiektu esanguratsu hau ere jasotzen da: *VII The Basque case: lessons learned for the prevention of violence and protection of peace – Indarkeria prebenitzeko eta bakea babesteko euskal kasuaren ikaskuntzak*.

## Printzipioak eta helburuak

Udaberri 2024 Planak hiru printzipio nagusi ditu: bizikidetzaren, giza eskubideen eta aniztasuna.

Bizikidetzaren Planaren horizontea da, helmuga, baina tolerantziatik haratago doan kontzeptu gisa ulertuta. Bizikidetzaren erronka globala da, bereizgarri polarizatua eta baztertua duten identitate-elementuek indarra hartzen ari diren mundu gero eta desorekatu honetan. Eta erronka global horretatik harago, toki mailan ere erronka bat da, berezia; izan ere, azken hamarkadetan bizikidetzaren zaurituta egon da, ETaren indarkeria terroristak eta beste indarkeria-adierazpen eta giza eskubideen urraketa batzuek eraginda. Indarkeriaren zikloa amaitzeak eta euskal gizartearen aktiboek berek –gizarte-ekimenak, kapital sozialak, auzolanak– aukera ezin hobe eman digute bizikidetzaren esparru bat berreraikitzeke, aitortza, aniztasun politikoa, enpatia eta elkarrizketa oinarri hartuta.

Eta elkarbizitza horri zutaberik sendoena jarri behar diogu: giza eskubideak. Giza eskubideak, ez soilik corpus teoriko batekiko atxikimendua edo desideratua direla ulertuta, baizik printzipio batekin (bizitzaren iraunkortasuna) hartutako konpromiso erreal eta hautemangarria dela ulertuta. Printzipio hori, bere ingurumen-dimentsio klasikoetik harago, berdintasunari lotuta hartu behar da eta desberdintasunaren aurka, diskriminazio intersektionalaren aurka eta bazterkeria- eta indarkeria-mota guztien aurkako borrokari lotuta. Giza garapen iraunkorrekiko konpromiso horrek, gainera, zeharkako begirada eta giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia euskal politika publiko guztietan aplikatzea ekarriko du. Esparru horretan, genero-berdintasunaren ikuspegiak eta diskriminazioaren eta genero-indarkeriaren aurkako borroka berezko dimentsioa eta izana dute.

Bizikidetzaren beraz, giza eskubideen babesean sortua izango da, aitortenez jantzia eta giza eskubideen aldekoa. Denak berdintzat hartu eta inor baztertzeko ez duen bizikidetzaren izango da. XXI. mendeko 20ko hamarkadan, funtsean, aniztasunean elkarrekin bizitzea esan nahi du horrek. Baina aniztasun hori ez da obligazioa, nahitaez onartu eta kudeatu behar duguna. Aldiz, aniztasuna eskubide guztiak erabat

dituen gizartearen bermea da, eta balio erantsia. Eta aniztasuna inor ez baztertua baino gehiago da, errespetua, tolerantzia eta koexistentzia baino gehiago. Jende guztiarentzako eskubideen, aukera-berdintasunaren, bizikidetzaren eta gizarte-elkarreragin osoaren garantia da.

Planaren helburu nagusia da bizikidetzaren hobetzea laguntzea, EAEn bizi diren pertsona guztiak giza eskubide guztiak erabat gaituzten, sinestatuta gaudelako adiskideen arteko bizikidetzaren delako gizarte demokratikoen duten onena.

Helburu horren zutabea zera da, denok argi izatea giza eskubideak eta giza duintasuna, eskubide horien oinarria, direla aberastasun oparoena. Aldi berean, gogoan dauka memoria duen bizikidetzaren ere, lantzen ari garen eta egitekoa dugun agendari begiratzen dihonean eta desberdinen arteko bizikidetzaren solidarioari eta datozkigun erronkari begiratzen dihonean.

Helburu nagusi horrekin batera, zeharkako ardatz ditugun beste hiru helburu operatibo planteatu ditugu:

- Giza Eskubide, Genero eta Intersektionalitatean oinarritutako ikuspegia txertatzea, gero eta gehiago, euskal politika publikoetan.
- Gardentasuna eta kontuak eman beharra bultzatzea Eusko Jaurlaritzak eremu horietan daramatzan jardun guztietan, giza eskubideak bere dimentsio guztietan errespetatuz, babestuz eta eraginkor bihurtuz.
- Herritarren parte hartzeko eskubidea ziurtatuko duten instantzia eta mekanismo eraginkorrei bultzada ematea.

## Eremuak

Inspirazio-iturri dituen aurrekariak, testuingurua eta oinarritzko printzipioak kontuan hartuta, 2021-2024 eperako Bizikidetzaren, Giza Eskubide eta Aniztasunaren Plana elkarren artean lotura estua duten hiru eremu handiren inguruan egituratuta dago, eta eremu horiek dira, hain zuzen ere, bere nortasun-ikur nagusia, hona: Bizikidetzarako Euskal Agenda, Giza Eskubideen Agenda Globala eta Aniztasunerako Euskal Agenda.

Bizikidetzarako Euskal Agendak oso helburu argia du: aurrera egitea bizikidetzaren hobea eta aberasgarriagoa erdiesteko, ez bakarrik orain arteko ezinikusi eta indarkeriak alde batera uzteko, baizik, halaber, gaur egun EAEn dauden errealitate politiko eta sozial anitzei erantzuteko moduan egoteko. Aurrerapen hori egingo badugu, ezinbestekoa izango dugu askatu gabe dauden korapiloak askatzea eta dagoeneko askatzen ari garenen prozesua amaitzea –batez ere, biktimei aitortza publikoa eta morala egin, denok bat egiteko moduko memoria eraiki, bizikidetzaren kultura bultzatzeko topaguneak sortu eta espere-politika egokitu-, eta euskal gizarte pluralaren orainak eta etorkizunak planteatzen dituzten erronkei sendoa aurre egitea.

Planak, aldi berean, begirada zabaltzea ekarriko du, eta Giza Eskubideen Agenda globalari so egitea. Bertakoa eta aldi berean globala izango da agenda, bizikidetzaren giza eskubideetan oinarritzen duena, jakinik giza eskubideak etengabe eraldatzen ari direla, gizartearen nahi eta adierazpenen segidan. Azken batean, euskal gizartearen kezka, erronka eta lehentasunak eta munduko kezka, erronka eta lehentasunak lotzen asmatuko duen agenda.

Koherentziaz, orduan, Bizikidetza, Giza Eskubide eta Aniztasunaren Planak giza eskubideak benetan bermatu eta babestu behar ditu. Giza eskubideak unibertsalak, interdependenteak eta banaezinak dira; beraz, Bizikidetzaren Euskal Agendaren erronkek are garrantzi handiagoa izango dute Giza Eskubideen Agenda Globalari dagokionez. Euskal herritar giza bizikidetza eraikitzeko dugun konpromisoak ez du zerikusirik giza eskubideekiko dugun erantzukizunarekin eta konpromisoarekin.

Gainera, Aniztasunerako Euskal Agendak onartua du ez dela nahikoa pertsona guztientzako aukera-, eskubide- eta betebeharrerdintasuna iristeko helburua izango duen arau-esparrua definitzea. Horrez aparte, ekintza politiko osoan neurri eraginkorrak sustatu nahi ditu, helburu horretara eramango gaituen prozesua bizkortzeko.





Bizikidetzaren  
Euskal Agenda





Indarkeriaren zikloa amaitzeaz bat, eszenatoki berrian agertu ginen, eta gure helburua bestelakoa da harrezkero: desberdinen arteko bizikidetzak eraiki behar dugu orain. Hainbaten ekarpenen emaitza izan da ziklo-amaiera hau, bereziki, euskal gizarte zibilarena eta haren erakundeena. Esparru horretan kokatu behar ditugu askotariko ekimen eta programen ekarpenak- horietako asko aitzindariak- eta orain arte egindako bizikidetzak-planenak. Denon artean zabaldu eta garbitu dugu bidea, eta leku onera goaz.

Eta, bide horretan, desberdinen arteko bizikidetzak eraikitzeak erronka kolektibo horri eta etorkizunari begira jarrita goaz aurrera, irrikaz. Etorkizun hori hiru zutabe handi eta sendotan bermatuko dugu: gizakiaren duintasuna, indarkeriazko zentzugabekeriaren erabateko deslegitimazioa eta giza eskubideen benetako babesa eta garantzia. Zutabe horien gainean eraikiko dugu giza-talde lagunkoi eta berberaren parte garelako sentiaraziko dugun bizikidetzak, berdintasunaren, aitortzearen, enpatia eta elkarrizketaren printzipioetan oinarrituta. Horra iritsi behar dugu.

Etorkizunari ez ezik, bere iraganari ere begiratzen dion gizarteak daukagu hortz-mugan zain. Iragan horrek hausnarketa kritikoa eta etikoa eskatzen digu, eta, bereziki, ETArekin unibertso politikoari buruzkoa. Proiektu politiko bat indarrez inposatzen saiatzeak, oinarritzko eskubide eta askatasunak urratzeak –horien artean lehena eta garrantzitsuenak, bizitzeko eskubidea- eta indarkeria helburu politikoekin erabiltzeak unibertso politiko horren autokritika etiko, politiko eta demokratikoa eragin beharko luke: bidegabekia izan zen, erabat bidegabekia. Iraganak, halaber, etorkizunerako ikaskuntzak ateratzera gonbidatuko gaitu. Hala, begirada berean bilduko ditugu iragana, oraina eta etorkizuna.

Biktimen aitortze soziala eta moralak, memoria kritikoa eratzea, biktima ezberdinen arteko topaketa eta espetxe-politikaren egokitzapena ez dira soilik ondo itxi ez den iraganeko kontuak. Bizikidetzak denoi dakarkizugun erronkei aurre egiteko ezinbesteko elementuak dira, eta hala behar dute izan.

Kontu horiek nahikoa ez, eta beste batzuk ere badira aintzat hartu beharrekoak –hain latzak izan ez arren-; gaur egungo euskal gizartearen ezaugarri den aniztasunetik eratorri direnak. Horrek esan nahi du Agendak bere egiten duela, halaber, banakako zein komunitateko erreferentzia-esparru desberdinak dituzten pertsonen eta kolektiboen arteko bizikidetzak dakartzan arazoei erantzuteko beharra. Hori guztia, gero eta polarizazio soziopolitiko handiagoa bizi dugunean eta norberaren identitatea «bestearen», desberdin pentsatzen duenaren, aurkakoa dela azpimarratzen denean. Ildo horretan, Planak bi lan-ildo planteatzen ditu: batetik, aniztasun politikoa indartzea euskal gizartearen DNA politikoaren bereizgarri gisa, eta bestetik, elementu batzuk sortzea eta sustatzea, borroka identitarioaren dinamika minimizatu edo desagerrarazteko eta, beste muturrean, politikoki anitza eta sozialki askotarikoa den proiektu komun baterako komunitatea eta partaidetza partekatua eraikitzeak.

### 1.1. Biktimei aintzatespen legala, instituzionala, soziala eta morala ematea

Bizikidetzarako Euskal Agendaren ardatz nagusia ditugu biktimak. Haien begiradak gure begirada izan behar du. Biktima guztiena. ETaren biktimak, hainbat markadetan indarkeria terrorista helburu politikoetarako erabili beharrez bidegabeki biktimizatu direlako asmo homogeneizatzailearekin eta baztertzailearekin. Baita eskuin muturreko beste erakunde terrorista batzuen biktimak ere (GAL, BVE ...), edo Estatuaren aparatuetara lotutako pertsonak indarkeriaz erabiliz eragindako biktimak ere. Denak dira biktimak. Parez pare jartzen, konpentsatzen edo inorkanpo uzten ibili gabe.

Biktima guztiek, inor bereizi gabe, merezi dute egia, memoria, errekonozimendua, oneratzea eta justizia. Bada denbora gure gizarteak bide horri ekin ziola –nahiz justiziaz tokatzen zena baino beranduago hasi–. Eta pausu sendo eta irmoz goaz aurrera, bide horretan denok batera, atsedetik hartu gabe, nahiz oraindik bide luzea izan. Biktimekin hartutako zorra kitatzetik urrun gaude oraindik, baina horretan laguntzeko asmoz dator Plana: egia, memoria, aitortza, oneratzea eta justizia erdietsi nahi ditu, eskubidea eta betebeharra delako; eta, batez ere, desberdinak izanik ere denak batera bizitzeko lekua emango digun etorkizunean, biktimak subjektu aktibo bihurtu. Biktimen sufrimendua, lekukotza eta erresilientzia, elkarbizitzaren alde egiteko nahia –gorrotorik eta mendekurik gabe– emari preziatuena da Bizikidetzarako Euskal Agendarentzat.

#### *A1. Terrorismoaren biktimei aitorpena eta erreparazioa emateko politiketan aurrera egitea eta politika horiek sendotzea.*

Ekainaren 19ko 4/2008 Legeak, EAEko Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoak, Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua sortu zuen. Gerora, otsailaren 23ko 55/2010 Dekretuak kontseilua nola osatuko zen, nolako izendapen-sistema eta funtzionamendu-araubidea izango zuen eta zer eginkizun bete beharko zituen arautu zuen. Urte batzuk beranduago, maiatzaren 17ko 75/2016 Dekretuaren bidez, Kontseiluaren izaera eta eginkizunak egokitu ziren, gizartearen eta politikaren testuinguruari eta biktimen politikaren garapenari men eginez, eta kontseiluaren jarduera-eremua hedatu zen –ordura arte laguntza-politiketara mugatuta zegoen– biktimen politika guztiei erreparatzeko, batik batik bat lagungarri izan dadin bizikidetzarako eta biktimak eta gizartea batzeko.

Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluak, 2020ko abenduaren 16ko bilkuran, aho batez onartu zuen honako dokumentu hau: «*Terrorismoaren biktimen aitorpenerako eta erreparaziorako eman beharreko urratsak, bai eta biktima horiek hezkuntza-planoan eta iraganari buruzko hausnarketa kritikoaren prozesuetan eta, oro har, desberdinen arteko elkarrizketan egiten duten ekarpena hobetzeko eta hura eraginkorragoa izateko*». Kontseiluak Biktimei laguntzeko etorkizuneko politika taxutzeko asmoz Kontseiluak eginiko ekarpena da dokumentua, lau ardatzetan egituratua: terrorismoaren biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematea, biktimek jendeari ikasten laguntzea, biktimak eta iraganari buruzko hausnarketa kritikoko prozesuak batzea eta biktimak eta desberdinen arteko elkarrizketa-prozesuak batzea.

Planak dokumentu hori inspirazio-testutzat hartu du, balio erantsi bereziko ekarpenetzat, eta Kontseiluaren esparruan garatzeko asmoa du legegintzaldi honetan.

Era berean, aitortzen dio gaia baduela etorkizuna eraikitzekeko elementu giltzarri izateko, desberdinen arteko bizikidetzaren lantzen duelako.

## *A2. Aintzatespen legala, instituzionala, soziala eta morala ematea motibazio politikoko indarkeria-giroan gertatu ziren giza eskubideen urratzeen eta beste bidegabeko sufrimendu batzuen biktimei, 12/2016 Legea garatzeko esparruan.*

2011ko martxoaren 31n, Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak 61/2011 Legez besteko Proposamena onetsi zuen, motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketa eta bestelako sufrimendu bidegabeak jasan dituzten biktimei buruz.

Proposamen hori bete nahirik, Eusko Jaurlaritzak ekainaren 12ko 107/2012 Dekretua onartu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketan ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimei aitortzeko eta biktime horiei ordainak emateko. 2016an, Balorazio Batzordeak azken txostena aurkeztu zuen: «Ahanzturatik ateratzen. Balorazio Batzordearen txostena, Euskal Autonomia Erkidegoan 1960tik 1978ra bitartean motibazio politikoko testuinguruan gertatutako giza eskubideen urraketari eta bestelako sufrimendu bidegabeak buruzkoa». Eginiko lanen balantzea ere, laburbilduz, honakoa: 210 pertsonaren testigantzak jaso, 239 irizpen egin, eta 187 biktimari aitortpena eman.

Urte hartan bertan onartu zen 12/2016 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean arrazoi politikoengatik indarkeriaren ondorioz giza eskubideen urraketa jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta ordaina ematekoa. Gerora aldatu egin zuen apirilaren 4ko 5/2019 Legeak. Bi lege horietan xedatuta dagoenaren arabera, 2020ko otsailaren 25ean, 20/2020 Dekretua onartu zuen Gobernu Kontseiluak, motibazio politikoko egoeran gertatutako giza eskubideen urraketan biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko prozedura garatzeari buruzkoa.

Plan honek bere gain hartu Balorazio Batzordearen lanen alde egiteko eta lanoi bultzada emateko konpromisoa, hala baitago ezarrita uztailaren 28ko 12/2016 Legearen 17.1 artikuluan eta 2018ko ekainaren 12ko Ebazpenean, eta, horrela, aipatutako legearen -eta hori aldarazi zuen Legearen (5/2019)- helburuak bete egingo dira, eta biktime horiei errekonozimendua eta erreparazioa emango zaie.

### 1.2. Iraganari buruzko gogoeta kritikoa

Iraganari buruzko gogoeta kritikoa ezinbestekoa dugu, mende erdiz baino gehiagorik ETaren helburu politikozko indarkeria jasan duenez gure gizarteak. Indarkeria hori ez zen gatazka politiko baten berezko ondorio izan, baizik eta proiektu politiko totalitario eta baztertzailerik bat indarrez ezartzeko borondatezko erabaki kontzienterik baten zentzugabekeria politiko, demokratiko eta etikoko ondorio. Eta erabaki horrek babes politiko erabakigarria izan zuen euskal gizartearen sektore jakin batean. Bestalde, era berean, euskal gizartearen eskuin muturreko talde terroristek eragindako giza eskubideen urraketan biktime izan da. Eta Estatuaren aparatuetara lotutako pertsonak ere legez kanpoko indarkeria erabili izan dute batzuetan. Autokritika, beraz, lehenik eta behin, indarkeria hori erabili zutenen eta babesa eman zieten kultura politikoen erantzukizuna da.

Denok begiratu behar diogu iraganari, gure betebeharra da; egia jakiteko eta justizia ezartzeko eskubide besterenezina lehengoratuko badugu, iragan bortitz hori berriz ez dela gertatuko ziurtatuko badugu. Eta, batez ere, ikasitakoari jaramon eginez, etorkizuna oinarri sendoetan bermatuta eraikiko badugu: bizitzeko eskubidea zainduz, jendeari duintasuna emanaz, giza eskubideei benetako babesa eta garantia emanaz, eta indarkeriaren zentzugabekeria erabat deslegitimizatuz.

Etorkizuneko EAEk memoria duen EAE izan behar du. Eta memoria hori eratzeko gertaeren ezagutza frogagarria hartu behar da kontuan. Memoriak gertaerak jaso behar ditu, gertaera guztiak: zer gertatu zen, zergatik gertatu zen, nortzuk izan ziren arduradunak, nortzuk izan ziren biktimak. Memoria eratzeko diziplina historikoa hartu behar da oinarritzat, baita zehaztasun eta metodo historiko-zientifikoa ere. Historia memoriaren eraketa sozialaren zerbitzura egon behar da, eta memoria egiaren zerbitzura.

Batez ere beste begira bat behar dugu, begiratzeko beste era bat, ekarriko duen memoria. Ikuspegi berri hori zazpi gaketan laburbil daiteke:

- Begirada inklusiboa, irekia, enpatikoa. Memorien memoria bat, begirada guztiak jasoko dituen, esperientzia guztiak, gertakari guztiak, nahiz eta oso gogorak izan. Selektiboa ez den begirada, baizik 360 gradukoa. Denon zauriak eta sufrimendua ikusiko duen begirada, lubakietatik harago, denok kabitze moduko memoria eraikitze.
- Begirada ausarta izango da, gure iraganaren ispiluaren aurrean kokatuko gaituena, itzuliko digun irudia askotan deserosoa izango bada ere.
- Biktimei, haien esperientziei, sufrimenduari, minari, erresilientziari eta etorkizuna eraikitze borondateari erreparatuko dien begirada izango da.
- Begirada pertsonala, gizatiarra, sentikorra. Datu, zenbaki, gertaera eta estatistika hotzez harago joango den begirada; arima eta bihotza dituen begirada.
- Begirada kritikoa. Kontua ez da gure jarrerak justifikatzeko eta legitimatzeko asmoz begiratzea iraganari. Memoriak ez du elkarri jaurtitzeko eta jendea elkarrengandik banatzeko arma izan behar, kohesio-tresna baizik. Begi kritiko eta autokritikoekin begiratzea da kontua; gorrotorik gabe, erresuminik gabe eta mendeku-gogorik gabe. Begi kritikoak izan behar dira indarkeria erabili, justifikatu edo testuinguruan jarri dutenekin. Baliteke ez etortzea bat diagnostikoarekin, baina indarkeria zentzugabearen eta giza eskubideen urraketan balorazio kritikoa egin dezakegu eta egin behar dugu.
- Begirada etikoa izango da, bizitzeko eskubidean, giza duintasunean, errespetuan, giza eskubideak defenditzen eta bultzatzen eta indarkeria zentzugabearen deslegitimazioan oinarritua; ez dagoelako inongo kausa politikorik ez estatuko arrazoirik gizakiaren duintasunaren gainetik. Eta honakoa erakutsiko digu begirada horrek: gertatutakoa bidegabekeria izan zen.
- Begirada gaztea izango da, gazteen kezka eta adierazpenetik irekia eta sentikorra dena, gazteen ikuspegia ere sartu behar delako memoriaren eraketan.

Horiek dira gure memoriaren politika sostengatzen duten oinarriak, etorkizunari begira denon memoria izango denaren izendatzaile komuna izateko baliatu daitekeena, eta baliatu behar dena. Hau da galdera garrantzitsuena: zertarako memoria? Eta erantzunak berbera izan behar luke denontzat: elkarrekin bizitzen asmatzeko.

Giza eskubideren bat urratuz gero honako hauek egin behar liratekeela argi duen politika behar dugu: 1) autokritika zintzoa, urraketa horiek ekarri zuten zentzugabekeria etiko, demokratiko eta politikoagatik; 2) eragindako kaltearen aitortzea; eta 3) erantzukizunak nor bere gain hartzea eta balorazio etiko argia egitea bi-degabekeriari eta biktimei, bereziki, eta euskal gizarte osoari, oro har, eragindako kaltea eragin zuten egite edo ez-egitei buruz.

Halako autokritika batek ekintza positiboko dinamika sustatu dezake, eta sustatu behar du; eta agertoki berria sortu behar du, gaitasun handikoa, bizikidetzaren normalizatura pausu luzez abiatzeko.

### *A3. Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Legea onartzeko ahalegina egitea, eta hura ezartzen lider izatea.*

Gobernu Kontseiluak Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Lege Proiektua onartu du 2021eko uztailaren 27ko bilkuran. Proiektua prozesu ireki eta parte-hartzaile luze baten emaitza da, eta Euskadiko memoriaren arloko politika publikoari arau-esparru bat ematen die. Politika horien lehen ekimen instituzionalek mende honen hasieran dute jatorria, eta bultzada berri eta irmoa jaso zuten Gogora- Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua-, sortzeko legea (azaroaren 27ko 4/2014 Legea) onartu zenean. Lege hori onartzeak mugarri berri bat ezarri zuen, memoria historiko eta demokratikoaren esparruan dagoeneko finkatutako erreferentzia diren politikak bultzatzeko itzelezko indarra egin baitzuen.

Legeak printzipio hauek ditu oinarri: egia, justizia, erreparazioa eta berriz ez gertatzeko garantia, bai eta konkordia, bizikidetzaren, aniztasun politikoa, giza eskubideen defentsa, bakearen kultura eta gizonen eta emakumeen berdintasuna ere.

### *A4. Memoria irekia, inklusiboa, kritikoa eta etikoa sustatzeko ekimenak, programak eta proiektuak garatzea.*

Gogora Institutuaren 2021-2024 Jarduera Plana erreferentziazko dokumentua da estrategia honen ondorioetarako. Laburbilduz, eta Agenda honi egiten dion ekarpenaren ondorioetarako, lau ardatz hauetan laburbil daitezke:

- Gogoeta eta eztabaida, denon memoria izango dena erdiesteko oinarritzko dokumentu bat prestatzeko.
- Ikerketa eta transferentzia, diziplina historikoak berezkoa duen oinarri eta metodo zientifikoa oinarritzat hartuta, memoriari eta eskubide-urraketei buruzko ikerketak bultzatzeko, txostenak egiteko, datu-baseak eta lekukotza-banquak sortzeko..., herritarren esku jartzeko; horri esker, memoriaren eraketa sozialari lagunduko zaio.
- Prestakuntza eta sentsibilizazioa, bai hezkuntzaren/curriculumaren eremuan -arloko eragileekin adostuta-, bai memoriaren pedagogiko programa irekien bidez. Eta beti memoria ireki, inklusibo, kritikoa eta etikoa, hau da, bizikidetzarako memoriaren, balioak sustatzeko.
- Memoriaren espazioak: XII. Legealdian, Gogoran, Gasteizko martxoaren 3ko espazio memorialean -Gasteizko Udalarekin, Arabako Foru Aldundiarekin, Gasteizko Apezpikutzarekin eta memorialaren inguruko gizarte-ekimenarekin batera; eta Gernikako Bake Museoan, museoa berritzen laguntzeko -Gernikako

Udalarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera-. Biktimei arretea emateko gune bizi gisa eta bakearen eta askatasunaren aldeko konpromiso zibikoari helduta sortutako zentroak izango dira (informazioa, erakusketa, ikerketa, prestakuntza, sentsibilizazioa, hausnarketa, eztabaida, esperimentazioa eta abar lantzeko), «bizikidetzarako memoria» leloa aintzat hartuta.

### 1.3. Espetxe-politika bizikidetzarako aktibo gisa

Espetxe-politikaren egokitzapena konpontzen ari garen kontu horietako bat da. Konponduz gero, egonkortasun-falta dakarkigun faktorea ezabatuko genuke, bizikidetzarako aktibo bat izango genuke gure alde.

Normalizazio hori alde aurreko hiru premisa edo kontsideraziotan oinarritu behar da:

1. Zuzenbide Estatua legitimatuta dago terrorismo-delituei aurre egiteko, baina horrek ez du aitzakiarik ematen oinarritzko giza eskubideak eta oinarritzko eskubide eta askatasunak ez babestu eta garantizatzeko. Terrorismoaren aurkako borrokak zigor- eta espetxe-legeria gogortzea ekarri zuen *de facto*, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak babestuta. Espetxe-politika terrorismoaren kontrako borroka moduan hartu eta bete zen; delitua jazaritzean eta zigortzean zentratu zen, delitugileak berriz gizarteratzean zentratu beharrean.
2. Baina presoak eskubideen -eta betebeharren- subjektu dira preso egonagatik ere, eta guztioi dagokigu eskubide horiek errespetatzea eta garantizatzea; bereziki, erakunde publikoei, baina horrek ez du, inondik ere, haien postulatu ideologikoekin bat datozenik adierazten.
3. Espetxe-politika ororen azken helburua da presoak berriz gizarteratzea, dagokien espetxealdiaren bete ondoren.

Premisa horietan oinarrituta, espetxe-politika egokitzea -batez ere ETaren jarraiera amaitu eta desegin ondoren- honakoa da:

- terrorismoaren aurkako kultura erreaktiboa eta haren corpus penala, prozesala eta espetxe-corpusa deseraikitzen jarraitzea, eta
- zigor- eta espetxe-arloko legeria eta politika birbideratzen jarraitzea, gizatasunaren, proportzionaltasunaren eta birsozializazioaren printzipioekin bat etorriz -ordainsariei dagokienez duen berezko dimentsioa alde batera utzi gabe-.

Irizpide horiek aplikatuz, European indarrean dagoen araudiarekin eta Estatuak gaur egun duen espetxe-politikaren estrategiarekin bat dator Plana, batik bat, presoak beren etxetik edo gizarteratutako diren lekutik hurbil dauden espetxeetan egoteko ahalegina egin behar dela dioten arauetan ezarritakoarekin. Gainera, gaixotasun larriak dituztenentzat, beren kargura adingabeak dituztenentzat edo hirurogeita hamar urte beteak dituztenentzat ordenamendu juridikoak eskaintzen dituen aukerak irizpide humanitarioekin aplikatu beharra defendatzen du Planak.

## *A5. Birgizarteratze- eta birsozializazio-printzipioetan oinarritutako euskal espetxe-eredua garatzea.*

2021eko maiatzaren 10ean sinatu zen espetxeen antolaketa, araubidea eta funtzionamendua Euskal Autonomia Erkidegoari transferitzeko akordioa. Gernikako Au-

tonomia Estatutuaren 10.14 eta 12.1 artikuluetan aurreikusitako eskumena da hori, baina akordioa ez da mamitu estatutua onartu eta 40 urte igaro arte. 2021eko urriaren 1etik / 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera egingo da.

Arlo zibileko eta zigor- eta espetxe-arloetako legeria orokorrarekin bat etortzekotan mamituko da transferentzia. Lehenik eta behin, baliabideak -materialak eta langileak-, azpiegiturak, ekipamenduak eta zerbitzuak transferitu behar lirateke. Eta transferentzia garatuko balitz, aukera ederra genuke espetxeetako eredu propioa taxutzeko, honako printzipio hauek oinarri hartuta: indibiduazioa, gizatasuna, eragindako kaltea aitortzea, leheneratzea, biktimen babesa, erregimen irekia sustatzea, espetxearen osteko birgizarteratzea eta birgizarteratzea komunitate-eremuan eta genero-ikuspegia.

Transferentziak berak eta etorkizuneko espetxe-ereduaren garapenak Plan honen eremua gainditzen dute, eta, jakina, EAeko espetxeetan askatasunik gabe dauden pertsona guztiei aplikatuko zaie. Izan ere, pertsona horiek guztiak dira ereduaren xede eta printzipio inspiratzaileak. Baina espetxe-politika Planean sartu dugu, nolana ere, printzipio-adierazpen gisa, politikan izan dezakeen dimentsioagatik, egia jakiteko eskubideari laguntzeagatik eta normalizatutako bizikidetzaren lortzeko faktore lagungarri izan daitekeelako, hori baita, ezer bada, Bizikidetzaren, Giza Eskubideen eta Aniztasunaren Plan honen ardatz eta helburu.

#### 1.4. Horizonte bera denontzat: elkarrenganatzeko gunea

Biktimen errekonozimendu sozial eta instituzionala, iraganari buruzko hausnarketa kritikoa eta espetxe-politikaren egokitzapena helburu dira, bere horretan. Baina, gainera, asmo handiagoa erdiesteko tresna dira: bizikidetzaren hobea.

Bizikidetzaren erdiesteko iraganak oraindik ere ezartzen dituen oztopoak gainditzeko egin behar den lanaz eta izan behar den konpromisoaz gain, gaur egun euskal gizartean ditugun errealitateak, nahiak eta eskaerak askotarikoak direnez, gizarte aurreratuetako kontuen inguruan dauden identitate eta pertzepzio desberdinetatik eratorritako beste fronte batzuk ere landu behar direla begi-bistakoa da.

Aniztasun politikoa, aitortpena, errespetua eta elkarriketa izan behar du oinarri bizikidetzak, bai eta eskubide-berdintasuna eta aukera-berdintasuna, inklusioa eta diskriminaziorik eza, eta era askotako harreman, interakzio eta loturak -bakoitzak bere identitate-ideario eta -sentimenduak baititu-. Izan ere, bizikidetzak, azken batean, talde komunitate ireki eta inklusiboko parte sentitzeko aukera eman behar liguke, eta komunitate hori taxutzen laguntzea da 2021-2024 Bizikidetzarako Euskal Agendaren erronka nagusia.

### *A6. Bizikidetzaren kultura bultzatzeko ekimenak eta topaguneak taxutzea.*

Indarkeriak kalte egin zion bizikidetzari. Indarkeriaren zikloa amaitu zenez gero, garai hartan irekitako zauriak sendatzen ari dira apurka. Onbide horretan aurrera egiteko, konpromiso pertsonalez gain, sendatzen laguntzeko politika publikoak behar dira.

Badugu horretan lagundu duten ekimenen eta programen hainbat adibide: biktimen eta biktimagileen arteko topaketa aringarriak, indarkeria desberdinen biktimen arteko elkarriketak, biktimen testigantzak ikasgelatan eta beste eremu

batzuetan adierazita, EAEko hainbat herritan sortutako bizikidetzarako foro-  
esperientziak, bakearen aldeko emakumeen plataformak... eskala mikroko ekimenak  
dira, baina bi ondorio ateratzeko balio izan dute: esperientzia ia denak aho batez  
ontzat hartu direla ikusteko eta konturatzeko esperientzia horiek ingurua eralda-  
tzeko izugarritzko gaia dutela.

Beraz, bide horretatik aurrera egiten jarraitu behar da, gaur egun indarrean dau-  
den programak bultzatuz eta indartuz –haien erresonantzia eta zalantzarik gabeko  
ahalmen eraldatzailea areagotzeko eskalatzen saiatuz–, eta dinamika eta ekimen  
berriak garatuz, orain arte eraikitako adostasunak zabaltzeko eta aniztasunean  
oinarritutako bizikidetzaren kultura bultzatzeko. Kultura horrek, gainera, espa-  
zio publikoan ere izan behar du isla sinbolikoa, bizikidetzarako benetako espazioa  
izango bada.







Giza Eskubideen  
Agenda Globala



«Mundu osoan, giza eskubideek eta demokraziak gero eta erronka handiagoak dituzte. Pandemiaren aurretik ere giza eskubideen atzerakada mailakatu eta iraunkorraren lekuko ginen, eta orain are gehiago larriagotu da atzerakada hori, COVID-19aren krisia dela-eta. Giza eskubideei eta demokraziari buruzko ekintza kolektibo sendo, koherente eta eraginkorraren premia daukagu, beste inoiz baino gehiago». Walter Stevensen hitzak dira, Genevako Nazio Batuen Bulegoko Europar Batasunaren Ordezkaritzako buruarenak. 2021eko otsailaren 22tik martxoaren 23ra Giza Eskubideen Kontseiluaren 46. bilkura-aldia ireki aurretik esan zituen.

Esaldia gaur egungo egoeraren isla zehatza da, Planaren aurreko ataletan aipatu den egoera berbera nabarmentzen du eta: giza eskubideak ahul, mehatxatuta eta urratuta daudela. Eta hainbat esparru eta mailatan jardutea behar du egoera horrek. Arauen bidez indarra egin behar da, erantzukizuna eta ardura galdegin; eta egoerari erantzun, bai bertatik bai maila globaletik.

Giza eskubideen geopolitika hori egiturazko aukera aparta izan daiteke Euskadira-ko, eskubide horiek babesteko, indartzeko eta bermatzeko estrategia bat definitu eta ezarriko bada.

Jende guztiak eskubide guztiak. Eskubideak corpus banaezintzat hartuta: eskubide politikoak eta zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta sortzen ari diren eskubide berriak. Zalantzarik gabe dimentsio indibiduala duten eskubideak dira, baina, batez ere eta lehenik, dimentsio komunitarioa dute; komunitatean bizi gara, elkarrekin. Guztion eskubideak errespetatu, babestu eta ziurtatu behar dira, eta arreta berezia jarri behar zaie eskubideak sistematikoki urratzeko mehatxupean dauden kolektiboek. Eskubideak denonak dira eta denontzat, edo ez dira eskubide. Eskubideak, azken batean, bizitzaren iraunkortasunari, berdintasunari eta diskriminaziorik ezari lotuta daude.

Printzipio nagusi horiek izan dira kontuan Giza Eskubideen Agenda Globala egiteko, baina betiere giza eskubideei lotutako doktrina- eta arau-corpora eta nazioarteko estandarrak betez eta, bereziki, Europar Batasuneko Oinarritzako Eskubideen Gutuna jaso. Mundu globalaren erronkei eta kezkei lotuta dagoen euskal gizartearen erronkei eta kezkei heltzen die Agendak, baina, aldi berean, aurreko orrialdeetan aipatutako Bizikidetzaren Euskal Agendari ere estu lotuta dago. Izan ere, giza eskubideak dira, zalantzarik gabe, oinarri sendoena eta erreferentzia-esparru nagusia konpondu beharrekoak konpontzeko, konpontzen ari garenen prozesua amaitzeko eta bizikidetzeta aberasgarriagoa eta hobea eraikitzeko bidean aurrera egiteko.

Baina Giza Eskubideen Agenda Globalak eta bere helburuak (eskubideok babestu, indartu eta benetan garantizatzea) planteamendu holistiko eta integrala behar dute. Herrialdeko erakunde- eta gizarte-ekosistema osoa barne hartuko duen eta erantzukide izango den planteamendua. Lelo horrek gidatuko badu ere Plan osoa, Agenda honen estrategia eta ekintza-ildo espezifikoak Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzaren eskumenekoak diren sustapenetan eta garapenean oinarrituko dira. Estrategia eta ildo horietara lotu beharko lirakeke garapenerako lankidetzarekin, ekintza humanitarioarekin, migrazioarekin, babesarekin eta asiloarekin eta abarrekin jarduteko estrategiak eta politikak ere, eta, bereziki, genero-berdintasunarekin lotutakoak; izan ere, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, aniztasunean oinarritutako berdintasuna eta emakumeak berezko eskubideak dituzten subjektuen izaera funtsezkoak dira giza eskubideetarako.

Giza Eskubideen Agenda Globalak, gainera, oro har euskal erakundeen eta, bereziki, Eusko Jaurlearitzaren gobernu-ekintza osoaren politiken koherentziaren printzipio inspiratzailea izan behar du, Gobernuaren politika publikoetan Giza Eskubideen Ikuspegia ziurtatzeko moduan, eta horretarako, beharrezkoak diren koordinazio- eta lankidetzak-mekanismoak ezarri beharko dira sail, erakunde eta sektoreen artean.

Giza Eskubideen Agenda Globalak herritartasuna eraikitzeke bermea ere izan behar du, giza eskubideak gizarteko denei inguratzeko gune zibikoa izan behar du; eta gizarte horrek, erantzukizunen titularra den aldetik, parte hartu behar du, bakoitzak berea eginez, aniztasunean oinarritutako bizikidetzak izango duen Euskadi eraikitzeke, eskubideak beti aintzat hartuta.

### *A7. Herrialdeko politika guztiei giza eskubideen ikuspegia ematea.*

Plan hau Euskadiko giza eskubideen hirugarren plana da, eta horrek aurrerapen esanguratsuak ekarri beharko lituzke haren defentsan, babesean eta bermean. Politiken koherentzia da, zalantzarik gabe, hori lortzeko biderik onena.

Herrialdeko politika guztiei giza eskubideen ikuspegia eta giza garapen iraunkorreko bidea ematea asmo handia da, helburu mardula, eta Agenda honen eskumen- eta denbora-esparrutik harago doa. Baina, hori izanik ezarritako jomuga, Agendak honako konpromiso hauek hartu ditu bere gain, proposatutako helbururantz aurrera egiteko.

Lehenengo konpromisoa da bi urtean behin Euskadiko Giza Eskubideen egoerari buruzko txostena egin eta eskura edukitzeko balioko duen metodologia bat sortu eta erabiltzea. Bai metodologia bai txostena, nazioarteko adierazleen estandarren eta sistemen arabera egingo dira, politikak giza eskubideekin duten harremanean erradiografiatzeko eta ebaluatzeko aukera emateko. Horri esker, Euskadin giza eskubideek agian atzera egiteko arriskua izan dezaketen eremuak detektatzeaz gain beste aukera batzuk ere izango ditugu. Bigarrena, beharrezkoa balitz, politika horiek birbideratzea eta Giza Eskubideen Euskal Agenda etengabe bizirik mantentzea.

Estrategia horrekin batera, egitura instituzional eta sozial bat sortu beharko da, estrategiari euskarria emateko.

### *A8. Herritarrak prestatzea, sentsibilizatzea eta ahalmenez hornitzea, giza eskubideekiko konpromisoa aktibatzeke.*

Ezagutza sortzea eta transferitzea, eta herritarrak hezteak, sentsibilizatzea eta ahaldundutzea dira aldaketarako palanka nagusietako bi, gizartea eraldatzeko dinamikak burutu eta mundu bidezkoago, gizatiarrago eta jasangarriagoa erdiesteko.

Giza eskubideen ikuspegitik, giza eskubideak jendearentzako, jendearekiko eta jendeagandik dira, edo ez dira; herritar kritikoak nahi baititugu, aldaketan eta eraldaketan parte hartuz, eskubideak bete-betean garatzen lagundu dezaten. Giza garapen iraunkorra mamitzeko bidea ireki eta urratzeko dinamikak aktibatzerak bideratuta egon behar du Giza Eskubideen Agenda Globalak.

#### 8.1. Ikerketa / Txostenak

Jakintzaren sorrera eta transferentzia unibertsitateetan eta haiei lotutako jakintza-guneetan kokatu izan da orain arte. Gaur egun, sorkuntza-transferitzeko no-

rabide bakarreko eskemaren ordean kogenerazioaren printzipioa eta elkarreragin anizkoitz eta sarekoaren printzipioa erabiltzen dira.

Hala ere, unibertsitateak funtsezko eragile dira -eta izango dira- kogenerazio eta interakzio anitzeko eta sareko prozesuetan. Horri dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan bi aktibo handi ditugu: batetik, Eusko Jaurlaritzak eta hiru unibertsitateek 2017ko urriaren 4an sinatutako esparru-akordioa, giza eskubideekin eta bizikidetzarekin lotutako programak elkarrekin bultzatzeko eta dinamizatzeko, eta, bestetik, giza eskubideetan espezializatutako bertako unibertsitate-zentroekin sinatutako lankidetzaren akordio egonkorrak, hain zuzen ere, honako hauekin sinatutakoak: EHU-UPVko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Unesco Katedra, Kriminologiako Euskal Institutua eta Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua (eta Estatuko beste unibertsitate batzuetako eragile eta institutuekin sinatutakoak).

Lankidetzaren esparru horien ondorioz, ikerketa, txosten, programa eta ekimen ugari egin dira oraintsuko memoriari buruz, indarkeriari eta terrorismoari, biktimizazioei, giza eskubideen urraketei, torturari, justizia leheneratzaileari, gorroto-delituei eta abarri buruz. Lan horiek guztiek ekarpen esanguratsua egin diote egitari, bai eta indarkeria deslegitimizazio politiko eta soziala, eta giza eskubideak eta desberdinekin dugun bizikidetzaren defendatu, babestu eta bermatzeko bidean doan kulturari.

2021-2024 eperako Giza Eskubideen Agenda Globalak konpromisoa hartu du giza eskubideen inguruko ezagutzaren kogenerazioarekiko eta elkarreragin anizkoitzarekiko eta sarearekiko konpromisoa berresteko. Bi ideia hauekin erabat sinetsita gaudelako: 1) Unibertsitateen eta unibertsitate-zentroek itzelezko potentzialtasuna dute, beren aktiboetako batzuk helburu horrekin lerrotatzen badira (prestakuntza etikoa eta balioak, gradu-amaierako eta master-amaierako lanak, ikerketa-proiektuak...); eta 2) Sareak ezartzeak, sinergiak sortzeak eta gerora begira unibertsitateen eta unibertsitate-zentro espezializatuen arteko lankidetzaren programa bateratuak garatzeak efektu biderkatzaileak dituzte.

## 8.2. Prestakuntza, hezkuntza, ahalduntzea: gaztedia kontziente, parte-hartzaile eta eraldatzailea sortzeko bidean

Prestakuntza, hezteak eta gaitasunak ematea ezinbesteko aurrebaldintzak dira gizartearen eraldatzeko dinamika sortu, giza garapen jasangarriantza aurrera egiteko.

Badugu nondik abiatu. Bidea urratuta dugu, gizarte-eraldaketarako prestakuntza-eraren eta ahalduntzearen helburu bikoitzari erantzuten dioten ekimen eta programa sorta ugaria baitugu dagoeneko:

*Gizalegez* akordioa, Hezkuntza Sailarekin eta Euskadiko Eskola Kontseiluarekin lotua; *Adi-adian* programa, biktimen zuzeneko testigantzak zabaltzeko ikasgeletan; *Memoria plaza* esperientzia; *Herenegun* unitate didaktikoa, Euskal Herriko oraintsuko memoriari buruzkoa; *Uztartu* programen esperientzia pilotuak -Gazteen erradikalizazio indarkerizalea prebenitzekoak- eta *Etikasi*, gazteek indarkeriak markatuta dituen Europako hirietara hezkuntza-bisitak egiteko programa, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin batera mamitu dena; *Mundua Eskolan Eskola Munduan* modulu didaktikoa -Lankidetzaren/Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin batera; *Eskura* /Giza Eskubideen aldeko Pedagogia-Baliabideen Zentroa, Donostiako Udalarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan

sustatua; Giza Eskubideetan eta Bakean Hezteko Elkarleen Foroarekin lankidetzan taxututako programak... Zoru sendo askoa daukagu, prestakuntza eta ahalduntzea lortzeko bideari ekiteko.

Prestakuntza, hezkuntza eta ahalduntze esparru horretan, hurrek, nerabeek eta gazteek osatutako kolektiboak estrategikoak dira. Gazteek ez dute bizi izan indarkeriaren eta haren ondorioen esperientzia traumatikoa –edo ez dira bizi izanaz kontziente–; beraz, ez dute horren gaineko beren memoria pertsonala eta errazago amortizatu dezakete iragana. Eta, aldi berean, gazteak etorkizuneko bizikidetzareduaren subjektu eta eragile dira. Gazteak bizikidetzaren etorkizunaren protagonista gisa ahalduntzea, bizikidetzaren eta gazteriaren arteko binomioa garatzea –are hezkuntza-sistemaz harago ere–: hori da Plan honen helburu nagusietako bat. Bizikidetzari buruzko hausnarketak eta eztabaidak ezin du indarkeriaren zikloko belaualdien monopolioa izan, eta ez du izan behar. Gazteek kontakizun berri bat behar dute, eta giza eskubideek memoriaren eta etorkizunaren arteko lotura egin dezakete.

Giza Eskubideen 2021-2024 Agenda Globalak giza eskubideen, bizikidetzaren eta aniztasunaren arloko prestakuntza- eta ahalduntze-plan integral bat garatzeko konpromisoa dauka. Giza eskubideen lege-esparru eta -estandarrak ezagutzea sustatuko duen programa bat –bai EAEn eta estatuan, bai European eta nazioartean–, eta herritarrek eta gizarte zibilak giza eskubideak babesteko eta horien urraketak salatzeko dituzten mekanismo eta interakzio-bideak sustatzekoa. Egun badauden ekimenak integratu eta artikulatuko dituen eta ekimen berriak txertatuko dituen programa bat. Helburuak, estrategiak, ekintzak, publikoak, helburuak eta tresnak ezarriko dituen programa. Herritar guztiei, hezkuntza-munduari –modalitate curricularrak nahiz extracurricularrak– zuzendutako programa, giza eskubideen ekosistemaren unibertsoko eragile eta operadore nagusiei eta, bereziki, haurrei, nerabeei eta gazteei zuzendutakoa.

### 8.3. Sentsibilizazioa: herritartasun kritikoa eraiki

Sentsibilizatzea, halaber, herritarrek giza eskubideekiko eta gizarte-eraldaketarekiko konpromisoa aktibatze beharrezko ekuazioaren zati bat da. Prestakuntzaren bidez sentsibilizatzea eta konpromisoa eta ekintzako helburu bera duten beste bide batzuen bidez sentsibilizatzea.

Erakundeen eta gizartearen arteko elkarrekintzak sustatzea, komunikabideak eta ikus-entzunezko baliabideak lantzea dira proposatutako helbururantz aurrera egiteko sentsibilizazio-bide egokienetako batzuk.

Adibidez, honako hauek guztiak sentsibilizatzeko eta parte harrarazteko helburuz mamitu ditugu: Elkarrekin Bonuen Programak –2014ko ekainaren 17ko 110/2014 Dekretuaren bidez sortuak–, irabazi-asmorik gabeko erakundeen, udalen, ikastetxeen eta abarren arteko elkarrekin bultzatzeko, giza eskubideei, tokiko bizikidetzari eta herritarren parte-harteari buruzko ekimenak dinamizatzeko; Zinexin Zinema eta Giza Eskubideen Erakusketari laguntzea; EITBrekin sinatutako hitzarmena; bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko proiektuetarako laguntzen deialdiak, besteak beste.

Giza Eskubideen 2021-2024 Agenda Globalak konpromisoa hartu du giza eskubideei buruzko sentsibilizazioko lan-ildoak indartzeko, gaur egun abian dauden programak ebaluatuta eta indartzeko beharrezko diren neurriak aplikatuz.

Arlo horretan aipamen berezia merezi dute René Cassin sariak eta abenduaren 10ean Giza Eskubideen Eguna ospatzeko giza eskubideei buruzko urteroko kanpainak.

René Cassin saria 2003. urtean sortu zen, giza eskubideak defenditzen, babesten eta garantizatzen buru-belarri lanean jardun den jendea edo ekimenak aintzates- teko. Saritutako pertsona, kolektibo edo ekimenari aintzatespena emateaz gain, giza eskubideen babesari eta urraketei buruzko gaurkotasuneko gaiak eta eztabai- dak lehen planoan kokatzeko aukera ematen du sariak.

Azkeneko bileran, azaroaren 18an, epaimahaiak, 2020ko edizioari dagokion saria Carlos Martín Beristain doktoreari emateaz gain, sariaren oinarriak berrikustea erabaki zuen, sariaren ospea, garrantzia eta proiektzioa indartzeko, eta Agendak erabaki hori konpromiso bihurtu zuen.

2023ko abenduaren 10ean 75 urte beteko dira Nazio Batuen Batzar Nagusiak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala onartu zuenetik. Efemeridea aukera ezin ho- bea da giza eskubideen egoera eta etorkizunari arreta emateko maila globalean nahiz tokian tokian. Agendak konpromisoa hartu du EAEn plan espezifiko bat gara- tzeko, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 75. urteurrenaren harian, giza eskubideen defentsaren, babesaren eta berme eraginkorraren aldeko sentsibiliza- zio-ekintza dinamika sustatzeko.

### *A9. Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen (EESK) agenda sortzea.*

NBERen EESK batzordeak koronabirusari buruzko gomendioetan adierazita dauka- naren arabera, «Krisi-garaietan inoiz baino garrantzitsuago dira eskubide horiek, erronka handiei -besteak beste, pandemia honi- aurre egiteko aukera ematen du- telako, baina aldi berean demokraziari eta askatasunari kontu eginez». Hala ere, mende hasieratik jasandako krisien ondorioz, hainbat austeritate-neurri jarri dira abian, eta horrek zuzenean ondorioak izan ditu, giza eskubideak galdu dira, bere- ziki eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak.

Egindako inkesta eta ikerketa askok erakusten dutenez, euskal herritarrei kalita- tezko osasun-sistema edukitzea, hezkuntza unibertsala izatea, eta lana eta etxebi- zitza duinak izatea interesatzen zaie gehien, besteak beste. Hortaz, bizikidetzarako eta giza eskubideetarako planak ezin ditu alde batera utzi kezka horiek, eta ezin du baimendutako progresibitatearen tranpan erori; izan ere, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak urratzeak zuzenean eramango gintuzke pobrezia eta gizar- te-bazterketara, eta horrek pertsonen bizi-kalitateari eta duintasunari eragingo lioke, eta, ondorioz, baita gainerako giza eskubideei ere.

2021-2024 Giza Eskubideen Agenda Globalak konpromisoa hartu du Jaurlaritzako gainerako sailekin koordinatzeko, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak gero eta gehiago bermatzeko aldera Europako Gutun Sozial berrikusiaren esparruan. Horretarako, aldizkako jarraipen-txostenak egingo dira, abian jarritako ekimenak aztertze eta proposatutako gomendioak aplikatzen laguntzeko.

Bestalde, dudarik ez da enpresak lehen mailako eragileak direla herrialdeko poli- tika gehienetan, eta giza eskubideei eta bizikidetzari buruzko politiketan ere hala izan litezke, izan behar lukete. Nazio Batuen *printzipio gidariek* eta Europar Bata- sunaren zuzentzauek ezarritako arau-esparrutik eta haren exijentziatik harago, Agendak badu printzipio gidari bat: giza eskubideen politika lehiakortasun-fakto-

rea da enpresetan. Enpresek, poliki-poliki, genero-berdintasuna, enpresa-kultura berria, ingurumenaren babesa eta halako kontzeptuak onartu eta txertatu dituzten bezala, hemendik aurrera giza eskubideak ere aintzat hartu behar lituzkete, baina ez soilik konpromiso soziala eta etikoa hartu behar luketelako, baizik lehiarako aukera eta abantaila emango dizkietelako.

Filosofia horretatik abiatuta, egin beharreko urratsak egiteko konpromisoa hartu du Agendak, Enpresaren eta Giza Eskubideen Euskal Plana aktibatzeke, inplikaturako enpresa-sektoreekin lankidetzan jardunez. Plana, hain zuzen, bat dator 2021eko uztailaren 20an Gobernu Kontseiluak onartutako Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko 2021-2024 Plan Estrategikoaren 6. ardatzarekin («enpresak nazioartekotzeko politika publikoen koherentzia»).

### *A10. Nazioarteko izaera eta proiektzioa duten giza eskubideei buruzko politika eta programa espezifikoak bultzatzea eta horien jarraipena egitea.*

Begirada lokal-globala berezkoa dute giza eskubideek. Hortaz, giza eskubideak behar bezala defenditzeko, babesteko eta garantizatzeko, dimentsio bikoitz hori ezinbestean hartu behar da kontuan; eta gure agendan eta bere estrategia guztietan kontuan hartuta ditugu.

Begirada global eta zeharkako horrekin batera, Agendak jarraipena eta bultzada eman nahi diete nazioarteko izaera eta proiektzioa duten programa espezifikoak, euskal gizarteak giza eskubideekiko egiten duen ekarpenaren eta konpromisoaren adierazgarri, bai eta gure mugetatik harago ere. Programa horien artean, honako hauek aipatu behar dira:

- Nazioarteko Kongresua: bi urtean behin egingo da, eta giza eskubideak defenditu, babestu eta garantizatzeari lotutako gai garrantzitsu eta egun-egunekoak izango ditu aztergai. 2022. urtean egingo den Nazioarteko Kongresuko gai nagusiak izango dira: XXI. mendeko adierazpen-askatasunaren erronkak, gorroto-diskurtsoekiko eta terrorismoaren apologiarekiko dialektika, eta zuzenbide-estatuaren oinarritzko zutabe horren gainean dauden arriskuak.
- «Giza eskubideen defendatzaileentzako programa»: bultzada emango zaio programa horri, eta giza eskubideen defentsarekin duten konpromisoagatik bizitza edo ongizatea arriskuan duten aktibistak sei hilabetez hartuko dira Euskadin. Babesaren ikuspegi integraletik abiatuta sortu da programa, eta lau ardatzen inguruan garatzen da: agenda politikoa, prestakuntza-agenda, laguntza psikosoziala eta itzultzeko laguntza. 2021ean programaren 10 urteurrena izango dela-eta, aitzakia ezin hobea dugu bultzada eta proiektzio berezia emateko.
- Euskadik beste bake-prozesu batzuei egindako ekarpena. Euskadik badauka zer eskaini nazioarteko komunitateari bake-prozesuari buruz, horretan esperientzia mardula daukagu-eta. Indarkeriaren esperientzia traumatikoa izan dugu, gaingitu dugu eta orain desberdinen arteko bizikidetzara erakitzeko erronka kolektiboari erantzuten ari gara. Hori da Euskadiren ekarpen propioa eta berezia, nazioartean gatazkak prebenitu, eraldatu eta konpontzen eta bake-kultura sustatzen laguntzeko. Helburu hori bete nahi du «Indarkeria prebenitzeko eta bakea babesteko euskal kasua-ren ikaskuntzak» izeneko proiektuak, 2030



*Agendako lehentasunen euskal programa. 2021-2024 Jarduketa-plana. Kontratu soziala eta proaktibitatea Garapen Jasangarriaren Helburuetarako programan sartzen denak.*

Esparru horretan, nabarmentzekoa da azken urteotan Kolonbiako erakunde eta organizazio batzuekin izandako lankidetzta, 2016ko azaroan FARCEk eta Kolonbiako gobernuak Habanan sinatutako Bake Akordioak ezartzen laguntzeko. Hona hemen lankidetzta horren adibide batzuk: «Kolonbia Mahaia» eratu eta bultzatu dute, gatazken eraldaketaren eta bakearen eraikuntzaren eremuan Kolonbiari lotutako hainbat euskal eragilek parte hartzen dutela; Egia Argitaratzeko, Bizikidetzarako eta Berriz Ez Gertatzeko Batzordeari laguntza eman zaio, erbestean biktimen testigantzak biltzeko ahalegina aurrera eramateko; edo Ernesto Semper presidente-ohia buru duen Vivamos Humanos Fundazioaren lanei lagundu zaie.

- Gainera, lankidetzta estrategikoa sendotu eta garatu da Giza Eskubideen aldeko nazioarteko erakunde nagusiekin: giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisariotzarekin, Europako Kontseiluarekin eta Iberoamerikako Estatuena Erakundearekin.







Aniztasunerako  
Euskal Agenda



Bizikidetzaren oinarrietako bat da pertsona guztien giza eskubideak eta duintasuna errespetatzea, arraza, sexua, sexu-orientazioa, identitatea edo genero, hizkuntza, erlijio, iritzi, jatorri nazional edo sozial, maila ekonomiko edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozial bereizi gabe.

Gizarte oparoenak pluralenak dira, askotariko identitateak dituztelako; aniztasuna aberastasun-iturriak eta alternatiba jasangarriak eraikitzeke aukera handiagoak dakartzalako. Bestalde, 2030 Agendak eta «inor atzean ez uzteko» konpromisoak tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren aldeko bultzada ekarri dute.

Gizarte pluralari eta bizikidetzari, gainera, ikuspegi interseksionalitatekin egin zaio bultzada, alegia, kasu egin behar zaie jendea eraikitzen duten kategoriatan aniztasunak, horrek kokatzen gaituelako bakoitza pribilegiozko edo diskriminaziozko leku batean gure giza eskubideak gozatzeko eta herritartasuna eta komunitatea eraikitzeke.

Gizarte kohesionatua eraikitzea (aniztasunaren balorazio eta kudeaketa positiboa eginez), diskriminazioaren aurka jardutea eta bizikidetzaren eta giza eskubideak sustatzea, denak ere, helburu garrantzitsuak dira politika publikoen eremuan, oro har, eta, zehazki, Plan honen eremuan, ikuspegi integrala eta interseksionala exijitzen duelako, nahiz diskriminazio-faktore espezifikoak buruzko ekintza espezifikoak ere garatu, baina betiere kategoriatan ugaritasun horretatik begiratuta.

### *A11. Euskadin tratu-berdintasuna areagotzea eta diskriminazioari aurre egitea.*

Datozen urteetan erronka bati aurre egin beharko diogu: diskriminazioaren eta desberdintasunaren aurka borrokatu beharko dugu. Entzun egin behar dugu, eta zer gizarte izan nahi dugun galdetu gure buruari. Inor kanpoan uzten ez duen gizarte izan nahi dugu, inor atzean uzten ez duena. Une honetan, giza eskubideak babestu eta sustatzeko lana kolokan dago, ez daukagu berme sendorik, eta, horregatik, aniztasunari buruzko diskurtso positiboa sortzea da oraingoz garrantzitsuenak. Oso garrantzitsua da sentsibilizazioa eta hezkuntza lantzea.

IKUSPEGI 2020an Euskadiko aniztasunari eta diskriminazioari buruz egindako ikerketak agerian utzi du aurreiritziak eta estereotipoak daudela hainbat gizarte-kolektibori buruz, eta zuzeneko nahiz zeharkako diskriminazioa gertatzen dela hainbat eremutan. Hori dela eta, beharrezkoa da errealitate hori aztertzen jarraitzea, gizartean zer giro dagoen sakonago ezagutzeko, oro har, aniztasunari buruz, eta, bereziki, zenbait kolektibori buruz, etorkizunean monitorizatzen jarraitzeko. Beharrezkoa da informazio eguneratua eta etengabea izatea. Planak Aniztasunaren Euskal Behatokia bultzatu nahi du, datuak, azterlan monografikoak eta aldizkako txostenak sortzeko.

Behatoki honetaz gain, diskriminazioaren biktimekin zuzenean lanean jarduten diren gizarte-erakundeak behar ditugu, haiekin batera egiteko lan. Horretarako,

Eraberean sarea bultzatzeko izaerari helduko diogu berriz. Eusko Jaurlaritzak sortu zuen sarea, hirugarren sektoreko hainbat erakunderekin zuzenean kolaboratuz, hartara, diskurtso eta praktika inklusiboak sustatzeko bai maila instituzionalean bai sozialean. Sareak irmo egin du lidergo partekatuaren alde, oreka sortu nahi duelako bi planteamenduen artean: alde batetik, prebentzio, pedagogia eta sensibilizazioaren planteamendua, eta, bestetik, pertsona jakin batzuei berehalako laguntza emateko planteamendu operatiboa. Eta legegintzaldi honetan jorratuko dugun erronketako bat da sare honen helburuak birpentsatu, indartu eta bultzatzea, erakundeen eta gizartearen arteko lidergo partekatuari eutsiz.

Euskadin tratu-berdintasuna bermatzeko eta diskriminazioaren aurka borrokatzeko funtsezko beste tresna bat Biltzen dugu, Integraziorako eta Kultura arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzua. Agendak zerbitzu hori ebaluatzeko konpromisoa hartu du, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzarekin estu-estu koordinatuta, eremu horretako egungo behar eta erronketara egokituta jartzeko.

Eta legediari dagokionez, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza lortzeko euskal lege integrala onartzeko ahalegina egingo dugu, helburu nagusi honekin: erregulazio-esparru orokor bat ezarri, printzipio, neurri eta beharrezko baliabide eta guzti, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza izateko eskubidea garrantizatzeko, giza duintasunaren errespetua ezartzeko eta pertsonen duintasunaren aurkako edozein diskriminaziozko jokabideren aurka egiteko.

### *A12. Sexu- eta genero-orientazioaren arabera aniztasunaren kudeaketa positiboa, eta LGTBI kolektiboaren diskriminazioaren aurkako borroka.*

Gure jarduketa-ildoak LGTBIQ Berdintasunerako Europako Batzordearen Estrategia 2020-2025 ere hartzen du orientabide moduan; izan ere, estrategian honako hau ezartzen da: «Europar Batasuneko guztiok seguru sentitu beharko genuke eta gu geu izateko askatasuna izan. Aniztasunean oinarritutako batasunetik sortu da gure indar sozial, politiko eta ekonomiko: berdintasuna eta diskriminaziorik eza EBren funtsezko balioak eta eskubideak dira, eta Tratatuetan eta Oinarrizko Eskubideen Gutunean jasota daude.» Hala ere, duela gutxiko ikerketek erakutsi duten bezala, gizarteak onarpen handiagoa izateak eta eskubide-berdintasunari babes handiagoa emateak ez du beti ekartzen hobekuntza argiak LGTBIQ pertsonen bizitzan.

2019ko galdetegi baten emaitzak aztertuta Oinarrizko Eskubideen Europar Batasunaren Agentziak (FRA) egiaztatu zuen egia esan, sexu-orientazioagatik, genero-identitateagatik edo -adierazpenagatik eta ezaugarri sexualengatik EBn zegoen diskriminazioa handitzen ari zela: LGBT pertsonen % 43k adierazi zuten diskriminatuta sentitu zirela 2019an, eta % 37k, berriz, 2016an.

Euskadin ere gertatzen da bereizketa mota hori. LGTBI kolektiboko pertsonen eskubide-urraketak identifikatzeko Diagnostikoa enkargatu zuen Eusko Jaurlaritzak 2020an. Lan horren arabera, LGTBI kolektiboko lau pertsonatik hiruk adierazi dute agian eskubide-urraketa den esperientziaren bat jasan dutela azken bi urteetan, edo LGTBI direla ezkutatzeko strategiaren bat erabili behar izan dutela. Diskriminazio hori handiagoa da emakume lesbianeiei eta transexualei edo transgeneroei dagokienez.

Azken finean, esan dezakegu LGTBI kolektiboaren egoerak hobera egin duela azken urteotan, baina oraindik asko dago egiteko. Aurreko belaunaldien borroka eta har-

tutako neurri arauemaile eta politikoak fruituak ematen ari dira, baina pertsona guztientzat berdintasun eskubide berberak lortzeko bidean atzera egiteko arriskua dagoenez, diskriminazio horri aurre hartu eta aurre egingo dioten politika proaktiboak garatu behar ditugu.

Legegintzaldi honetan, Berdinu zerbitzua indartuko dugu, LGTBI pertsoneri eta haien hurbilekoei arreta eta laguntza ematen baitie zerbitzu publiko horrek, haien sexu-orientazioarekin eta -identitatearekin lotutako gaiekin laguntzeko. Gainera, pertsona bakoitzaren sexu- eta genero-aniztasuna errespetatzeko eta aniztasun hori kudeatzeko ekintzak burutzen ditu, LGTBI pertsona batzuen eskubideak eta askatasunak erabat baliatzeko egon daitezkeen oztopoak kentzeko helburuz. Eta zerbitzuaren barruan, *Berdindu Eskolari* arreta berezia jarriko diogu, ikastetxe gehiagotara iristeko, Hezkuntza Sailarekin koordinatuta.

Funtsezkoa da LGTBI kolektiboari, erakunde publiko eta pribatuei eta, oro har, gizarteari zerbitzu horien berri ematea. 2020an, Berdinu egoitza bana ireki zuen hiru euskal hiriburuetan, herritarrei kasu egiteko, eta datozen urteetan ahalik eta pertsona gehienengana iristeko ahalegina egingo dugu.

LGTBI pertsonen eskubideen alde borrokatzeko eta horietako askok oraindik jasaten duten diskriminazioari aurre egiteko, LGTBI kolektiboko elkarten parte-hartzea sustatu behar da, eta euskal gizartearen hezkuntzan, prestakuntzan eta sensibilizazioan inbertitu. Horren adibide dugu Zinegoak-eri, Bilboko Gaylesbitrans Zinema eta Arte Eszenikoen Nazioarteko Jaialdiari, emandako laguntza.

Legegintzari dagokionez, transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeko eta haien eskubideak aitortzeko legea (ekainaren 28ko 14/2012 Legea) aldarazteko ahalegina egingo dugu. Hain zuzen, aldaketa horren arrazoi nagusia da Legea transexualen egungo premietara egokitu behar dela, eta arlo horretan sailen eta erakundeen arteko koordinazioa hobetu behar dela.

### *A13. Kulturako, arrazako eta jatorri etnikozko aniztasuna onerako kudeatu, eta bazterkeriaren kontra borroka egin.*

Europar Batasunak arrazakeriaren aurkako Ekintza Plan bat onartu zuen 2020ko irailaren 18an, 2025. urtera arteko epea jarrita guztiz taxutzeko. Plan honen testuingurua honako hau da: arrazismoa eta arraza-diskriminazioa oraindik ere errotuta dauden fenomeno iraunkorrak dira mundu osoan, eta COVID-19aren krisiak larriagotu egin ditu fenomeno horiek, are gehiago, birusa zabaltzea ere leporatu zaie batzuei gutxiengo horiei.

#### 13.1. Ijito-herria erabat integratu eta gizartean parte hartzen lagundu

Ekintza Plan horrek berariaz adierazi du ijitoen gaineko diskriminazioa Europan zabalduen dagoen diskriminazio motetako bat dela. Halaber, Europako Batzordeak duela gutxi onartu du Ijito-herriaren Berdintasun, Gizarteratze eta Parte-hartzerako Europako Marko Estrategiko berria (2020-2030), plan honen ikuspegi bera duena. Ikuspegi hori aurrerapauso handia da gainera, eta berdintasunaren partaidetzatik eta sustapenetik ekiten die jarduketa-ildo estrategikoei, eta ez hainbeste gizarteratsetik; ijito-herria herri baztertua eta kaltebera soilik delako estigma ezabatzen laguntzen du, gure inguruko aberastasun sozialari laguntzen dion eskubide-subjektua baita.

EAEn, Euskadiko Aniztasunari eta Diskriminazioari buruzko 2020ko galdeketa ondorioztatu du ijitoak direla, nabarmen, eremu gehienetan diskriminazio han-

diena jasaten dutenak eta, gainera, kolektibo hori dela jendeak gehien gaitzesten duena eta euskal gizartearekin interakzio sozial txikiena duena.

Ikerketa horrek agerian utzi du, azken urteetan aurrerapenak egin badira ere (Euskadik Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Euskal Plan bat dugu 2004. urteaz geroztik), ijitoen aurkako joera txarra oraindik ere oztopo larria dela, eta ijito askori beren oinarrizko eskubideak erabat eta eraginkortasunez baliatzea eragozten diela. Diskriminazio horri aurre egin eta ijito-herria gure gizartean erabat integratzea izango da 2021-2023 aldirako Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia berriak egin beharreko lanetako bat, betiere, haien aniztasuna errespetatuz.

Estrategia diseinatzeko, ijito-herriak parte hartuko duela ziurtatu beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluan ordezkaturako elkarten bitartez. Arreta berezia jarriko da emakume eta gazte ijitoen parte-hartzea ziurtatzeko, bai diseinuan bai ezarpenean, prozesu osoaren eragile nagusi direnez.

### 13.2. Migratzaileen erabateko sustapena eta parte-hartzea

Euskal gizarteak oso gogoan ditu iraganeko migrazioak eta euskal herritarrak diaspora horretara behartu zituzten arrazoiak (ekonomikoak eta politikoak). Horregatik sinestatuta dago behartuta dagoela, batzuen eta besteen motibazioak alde batera utzita, migratu eta Euskal Autonomia Erkidegora etortzea aukeratu duten edo, nolahi, nahitaezko migratzaileen profila duten den-denei kontu egitera; izan ere, euskal gizarteko beste edozeinen eskubide berberak dituztela ikusarazi behar da.

Plan honek Migrazioerako Euskal Itun Sozialean jasotako akordioak landu behar ditu eta datozen urteetako Migrazioetarako Estrategia finkatzen lagundu, Migrazio eta Asilo Zuzendaritza berriarekin etengabe koordinatuta.

#### *A14. Erlijio-aniztasuna onerako kudeatzea eta erlijio-arrazoiengatik diskriminazioaren aurka borrokatzea.*

Azken hamarkadetan, erlijio-fenomenoek aldaketa handiak izan dituzte gure inguruko gizarteetan. Oro har, esan daiteke erlijioaren bilakaera hori sinesmen-aniztasunari edo kidetza-sentimenduen aniztasunari zor zaiola, bai eta gure gizarteetako zati garrantzitsu bati eragiten dioten sekularizazio-prozesuei ere. Eta euskal gizartean zehazki, erlijio-aniztasuna ez da erabateko berritasuna, baina gero eta garrantzi handiagoa du sozialki, eta, hori dela-eta, gero eta beharrezkoagoa da aniztasun horren kudeaketa publiko egokia gitea.

EAEn, oro har, jendeak gutxi daki gure inguruko errealitate sozio-erlijiosoari buruz. Jendeari asko kostatzen zaio erlijio-aniztasuna gure gizartearen ezaugarritzat hartzea. Horrekin lotutako arrazoi batzuk estereotipo eta aurreiritziekin lotuta daude; horietako gehienak, herritarrek, oro har, duten informazio-faltak edo informazio txarragatik sortuak. Uste horiek areagotu egiten dira erlijio jakin batzuen kasuan. Bestalde, erlijio-erakundeetako ordezkariak ez dute parte hartzeko edo presentzia edukitzeko espaziorik, administrazio publikoarekin duten elkarriketan jarduteko.

Testuinguru horretan, plan honek gure herrialdeko erlijio-aniztasuna hobeto eza-gutzen lagunduko duten eta kudeaketa positiboko neurriak hartzeko oinarri izango diren txostenak eta datuak sortzearen alde egin nahi du. Horretarako, beste txos-



ten batzuen artean, EAEko mapa sozio-erlijioso eguneratu bat argitaratu da 2021. urtean, aldian-aldian berrikusiko dena.

Elkarrizketa funtsezko tresna izango da EAEko erlijio-aniztasunaren kudeaketa positiboa egiteko. Horregatik, ezinbestekoa da EAEko Erlijioen arteko Kontseilua sortzea. Aholku-emailea izan arren, oso lagungarria izango da erlijio-askatasunean eta kultu-askatasunean berriaz eragin dezaketen ekimen eta erabakietan. Eragile dinamizatzailea izango da, eta diagnostikoak partekatzeko eta gizartearen aniztasuna babestu eta sustatzeko jarduera koherenteak proposatzeko foroak.

Honako hauek osatuko dute Erlijioen arteko Kontseilua: Eusko Jaurjaritza, hiru foru-aldundiak, udalak, elizak, erlijio-sinesmenak eta -komunitateak, gaitasun aitortua duten pertsonak eta interes kualifikatuko herritarren elkarteak. Gainera, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren 2021 Berdintasun Planaren ezarritakoa betetz, emakumeek kontseilu horretan parte hartzea sustatuko da.

Halaber, ADOS Batzordeak hasitako lanarekin jarraituko da, bizikidetzaren sustatzeko Euskadiko komunitate islamikoekin batera.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-leku edo -zentroei eta erlijio-aniztasunari buruzko Lege berriaren ezarpena bultzatzeko konpromisoa berresten da. Horren lege-proiektua Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2021eko ekainaren 15ean. Lege horren bidez, EAEn dagoen erlijio-aniztasunari babes juridikoa emango zaio, EAEn finkatuta dauden sinesmen guztien bizikidetzaren eta elkarrizketa berdintasunean babestuz eta bermatuz, bai eta beren kultu-zentroak edo -lekuak irekitzeko eta erabiltzeko duten oinarriko eskubidea ere.

### *A15. Adinagatiko aniztasunaren kudeaketa ona egitea eta adinekoen, haurren eta nerabeen bazterkeriaren aurka borrokatzea.*

COVID-19aren krisiak are ageriago utzi du haurrak, nerabeak eta adinekoak bereziki kaltebera direla denak ere. Hiru kolektibo ugari dira eta euskal gizartearen eraikitzearen prozesuan askotariko profil protagonista dituzte.

Planak bi ikuspuntutatik hartu du aintzat kolektibo horiek: erantzukizunen titular diren aldetik, eskubide guztiak dituen herritartasuna eraikitzen jarraitzeko aukera emango dieten tresnak emanez; eta eskubideen titular diren aldetik, jasaten dituzten urraketak denei ikusaraziz eta urraketa horiei kasu eginez. Horretarako, Giza Eskubideen 2021-2024 Agenda Orokorra konpromisoa hartu du adinaren ondoriozko aniztasuna ere aintzat hartzeko, abian jarritako ekimenak aztertzen dituzten aldizkako txostenetan..

### *A16. Dibertsitate funtzionalaren kudeaketa ona egitea eta bazterkeriaren aurka borrokatzea.*

Intersektionalitatearen ikuspegitik jardutea agian ikusgarriagoa da gaitasun desberdinak dituzten pertsonak dauden talde honetan, gaitasun desberdin horientatik zailago dutelako beraiek ere kide diren beste gizarte-eremu batzuetan parte hartzea.

Planak desgaitasuna duten pertsonen giza eskubideei erantzun behar die, eta ahallegina egin behar du gizartearen halako jendearen premia jakinekiko sentsibilizatzeko, hala lortzeko baitugu gaitasun desberdina dutenek ere ahal duten autonomia gehien

izatea. Hala, haur, nerabe eta adinekoen kasuan bezala, Plan honek dibertsitate funtzionala duten pertsonak hartzen ditu barne, erantzukizunen titular diren aldetik, bai eta eskubideen titular diren aldetik ere, euskal gizartearen eraikuntzan parte-hartze aktiboa sustatuko duten ekimenak garatuz eta jasaten dituzten diskriminazio-esparruak hautemanez eta ikusaraziz.

Horretarako, beste sail batzuekin koordinatuta lan egingo du planak, beren eskubideak erabiltzeko eta baliatzeko gaitasun osoa emango dieten ondasun eta zerbitzu egokituak eskura izango dituela garantizatuzeko, ikuspegi asistentzialista baino harago jota.



## Plana kudeatu, koordinatu, gainbegiratu eta ebaluatzea. Gardentasuna eta kontuak azaltzea.

Bere irismenagatik eta edukiengatik, horietakoren batekin zerikusia duten erakunde guztiak eta euskal gizartea ordezkatzen duten erakunde guztiak planaren garapenean inplikatzeko saiatuko da Plana. Politika publikoetan giza eskubideen, generoaren eta intersektionalitatearen ikuspegia bermatzeko, Giza Eskubideen, Memoriaren eta Lankidetzaren Sailburuordetza eta, horren barruan, Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritza dira Plan honen edukiak abian jartzea, implementatzea, jarraipena egitea eta zeharkako koordinazioa bermatzeko ardura duten instantziak.

Planak jarraipen-sistema bat izango du, egitura-, prozesu- eta emaitza-adierazle sistemak baten bidez, garapena ebaluatu eta lortutako emaitzen kontuak emateko, eta betetze-maila eta eraginkortasuna ebaluatzen laguntzeko. Kasu bakoitzeko, ekitaldi bakoitzean garatu beharreko ekintza-ildo bakoitzean lortu beharreko helburu zehatzak zehaztu dira, baita helburu horiek gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak eta horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko adierazle egokiak ere.

Plana behar bezala garatzeko eta erakundeen, sailen eta gizartearen arteko koordinazioa egokia dela ziurtatzeko, jarraipena, kontsulta eta kontu-ematea egiteko egitura parte-hartzailea emango zaio Planari.

Printzipio horien arabera, Planak honako tresna hauek izango ditu:

- Sailarteko batzorde bat Eusko Jaurlaritzan, giza eskubideek Jaurlaritzako politika guztietan duten ikuspegia ikuskatzeko.
- Planaren ekintzetako bakoitzean zuzenean inplikaturako sail, erakunde eta gizarte-eragileekin harreman eta elkarrekintza zuzena ezartzeko dinamika bat.
- Planifikazioari buruzko urteko txostena, ekitaldi bakoitzaren lehen hiru hilabeteetan egingo dena, non ekintza bakoitzerako helburuak, baliabideak eta adierazleak zehaztu baitira martxan den urterako.
- Planaren jarraipenari buruzko urteko txostena, Eusko Legebiltzarreko dagokion batzordera igorri eta bertan aurkeztuko dena.
- Plana ebaluatzeko azken txostena, kanpoko erakunde independente batek egindakoa, Planaren indarraldia amaitzean.





# I. Eranskina. Jarduera Programa

## 1. Bizikidetzarako Euskal Agenda

### 1A. *Terrorismoaren biktimen aitorpen- eta erreparazio-politikak sendotzea eta urrats berriak ematea.*

Ekintza	2021	2022	2023	2024
<b>A1</b> <i>Terrorismoaren biktimen aitorpenaren eta erreparazioaren arloan eman beharreko urratsei...</i> buruzko dokumentua garatzea – Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Kontseiluak 2020ko abenduaren 16ko bileran onartutakoa–	X	X	X	X
<b>A2</b> Terrorismoaren Biktimen Euskal Legea aldatzeko aukerak eta aldatzea komeni oten den baloratzea	X	X		
<b>A3</b> Memoriaren Mapa eguneratzea eta azken hamar urteetan toki-mailan garatutako ekimenei buruzko txostena egitea	X	X		
<b>A4</b> Memoria eta Aitorpen Koadernoak <i>ad hoc</i> egin eta entregatzea, terrorismoaren biktima mortalen egiarako eta justiziarako eskubideetan laguntzeko, kasua guztiz argitu ez den egoeretan	X	X	X	X
<b>A5</b> <i>ETAren terrorismoaren ondorioz Estatuko Segurtasuneko Kidego eta Indarretako pertsonen nahiz beren senideek jasandako injustiziari buruzko txostena (1960-2011) amaitu eta aurkeztea</i>	X			
<b>A6</b> <i>ETAren terrorismoaren ondorioz espetxeetako funtzionarioek eta beren senideek jasandako injustiziari buruzko txostena (1960-2011) egitea</i>		X		
<b>A7</b> Biktimen lekukotzak grabatzen jarraitzea –2021ean bereziki jasoko direlarik mehatxatutako zinegotzien lekukotzak–	X	X	X	X
<b>A8</b> Biktimen lekukotzei buruzko <i>Adi-adian</i> programa eskaintzen jarraitzea, gelan bertan, euskal ikastetxeetan, eta programa hori aldatu edo handitzeko aukera baloratzea	X	X	X	X
<b>A9</b> Terrorismoaren biktimei laguntzen jarraitzea, 4/2008 Legea eta hura garatzen duen Dekretua betez	X	X	X	X
<b>A10</b> Terrorismoaren biktimen elkarteentzako laguntzen deialdiekin jarraitzea	X	X	X	X

**2A 12/2016 Legea garatzeko esparruan, motibazio politikoko indarkeriaren biktimek jasan dituzten giza eskubideen urraketak eta beste sufrimendu bidegabe batzuk legean, instituzioetan, gizartean, sozialki nahiz moralki aitortzen direla sustatzea.**

Ekintza	2021	2022	2023	2024
<b>A11</b> 12/2016 Legearen 17.1. artikulua eta 2018ko ekainaren 12ko Ebazpenaren bidez sortutako Balorazio Batzordearen lana babestea	X	X	X	X
<b>A12</b> Biktimei eta beren senideei helaraztea hasitako espedienteen gainean emandako ebazpenak	X	X	X	X
<b>A13</b> Legearen aplikazio-eremua eta haren balizko onuradunak hedatu eta sozializatzea	X	X		

**3A Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Legea onartzeko ahalegina egitea, eta hura ezartzen lider izatea.**

Ekintza	2021	2022	2023	2024
<b>A14</b> Eusko Legebiltzarrak onartutakoan, Legeak berak ezarritako arauzko aurreikuspenak gauzatzea		X	X	

#### 4A *Memoria irekia, inklusiboa, kritikoa eta etikoa sustatzeko ekimenak, programak eta proiektuak garatzea.*

(Gogora Institutuaren 2021-2024 Jarduera Planeko ekintzen zerrenda osoa).

Ekintza	2021	2022	2023	2024
<b>A15</b> Gogora Institutuaren erakusketa-espazioa sortzea bere egoitzako patioan (Maria Díaz de Haro)	X	X	X	
<b>A16</b> Martxoak 3 Memoriagunea / Memorial 3 de marzo izeneko erakusketa-espazioa sortzea Gasteizen, Arabako Foru Aldundiarekin, Gasteizko Udalarekin, Gasteizko Apezpikutzarekin eta gizarte-ekimenarekin (Memoria Gara...) lankidetzan	X	X	X	X
<b>A17</b> Gernika 1937 Museoa berritzea, bere erakusketa-proiektua helburu berrituarekin bat etor dadin, Gernikako Udalarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan		X	X	X
<b>A18</b> Etorkizunerako memoria partekatua eraikitzeke oinarriak finkatzeko hausnarketa- eta eztabaida-prozesua sustatzea		X	X	
<b>A19</b> Oraintsuko memoria eskualde- eta udalerrri-mailan berreskuratzen laguntzea, udalekin eta gizarte-erakundeekin lankidetzan	X	X	X	X
<b>A20</b> Esperientzia pilotu gisa garatzea <i>Herenegun</i> unitate didaktikoa, EAEko bederatzi ikastetxetan, 2021-2022an. Esperientzia pilotua ebaluatutakoan, etorkizunean aplikatzeko aukerari buruzko erabakia hartuko da	X	X		
<b>A21</b> Hitzarmenak garatzea EITBrekin eta Nafarroako Gobernuarekin –memoriaren, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen gainean–	X	X	X	X

**5A *Birgizarteratze- eta birsozializazio-printzipioetan oinarritutako euskal espetxe-eredua garatzea.***

Ekintza	2021	2022	2023	2024
<b>A22</b> Euskal espetxe-eredu berria ezartzen laguntzea, batez ere alderdi errestauratiboan	X	X	X	X

**6A *Bizikidetzaren kultura bultzatzeko ekimenak eta topaguneak taxutzea.***

Ekintza	2021	2022	2023	2024
<b>A23</b> Gazteria, bizikidetzaren eta etorkizunaren hausnarketa- eta eztabaida-prozesua garatzea	X	X		
<b>A24</b> Bizikidetzaren oinarriko printzipio eta balioen ikur den elementu artistiko-grafiko bat sortzea		X	X	

**7A *Herrialdeko politika guztiei giza eskubideen ikuspegia ematea.***

Ekintza	2021	2022	2023	2024
<b>A25</b> Bi urtean behin Euskadiko giza eskubideen egoerari buruzko txostena egitea, nazioarteko adierazle-sistemak, estandarrak eta metodologia betez		X		X
<b>A26</b> Giza eskubideen ikuspegia herrialdeko politikan zelan aplikatzen den ikuskatzeko arkitektura instituzional-soziala sortzea		X		



## 8A *Herritarrak prestatzea, sentsibilizatzea eta ahalmenez hornitzea, giza eskubideekiko konpromisoa aktibatzea.*

Ekintza	2021	2022	2023	2024
---------	------	------	------	------

### 8.1. Ikerketa / Txostenak

<b>A27</b> EHuko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrarekin, Kriminologiaren Euskal Institutuarekin eta Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuarekin lankidetzan aritzeko esparrua finkatzea	X	X	X	X
<b>A28</b> Hiru euskal unibertsitateekin lankidetzan aritzeko esparrua indartzea, giza eskubideekin eta bizikidetzarekin lotutako programak sustatzeko		X	X	X

### 8.2. Prestakuntza, hezkuntza, ahalduntzea: gaztedia kontziente, parte-hartzaile eta eraldatzailea sortzeko bidean

<b>A29</b> Honako programa hauen esperientzia pilotuak baloratzea: Uztartu –gazteriaren erradikalizazio bortitzaren prebentzioa– eta Etikasi –biolentziaren esperientziak jasan dituzten hiri europarretara gazteek bisita hezitzaileak egiteko programa–, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin lankidetzan	X	X	X	X
<b>A30</b> <i>Eskura</i> Giza Eskubideen aldeko Pedagogia Baliabideen Zentroari beste bultzada bat ematea –Donostiako Udalarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan–	X	X	X	X
<b>A31</b> Giza eskubideen, bizikidetzaren eta aniztasunaren gaineko prestakuntzaren eta ahalduntzearen plan integrala garatzea	X	X	X	X

### 8.3. Sentsibilizazioa: herritartasun kritikoa eraiki

<b>A32</b> Elkarrekin Bonu programa ebaluatu eta, hala badagokio, berrorientatzea, irabazi-asmorik bako erakundeen, udalen, ikastetxeen eta abarren artean elkarrekintzak sustatzeko, giza eskubideen, tokiko bizikidetzaren eta herritarren partaidetzaren gaineko ekimenak dinamizatzeko aldera	X	X		
<b>A33</b> Zinexit Giza Eskubideen Zinema Erakustaldia babestea	X	X	X	X
<b>A34</b> Bizikidetzaren eta giza eskubideen gaineko proiektuetarako laguntzen deialdiekin jarraitzea	X	X	X	X

<b>A35</b> René Cassin sariari beste bultzada bat ematea, bere izen ona, garrantzia eta proiektzioa indartzeko		X	X	
<b>A36</b> Nazio Batuen Batzar Nagusiak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala onartu zuenetik igarotako 75 urteak omentzeko programa espezifiko bat garatzea			X	X

**9A *Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen (EESK) agendan aurrera egitea.***

Ekintza	2021	2022	2023	2024
<b>A37</b> Jaurlaritzaren barruan ikuskatzea Europako Gizarte Gutun berrikusia eta EESK (2022-2024) nola aplikatzen diren		X		X
<b>A38</b> Enpresa eta Giza Eskubideen Euskal Plana egin eta garatzea	X	X	X	X

**10A *Nazioarteko izaera eta proiektzioa duten giza eskubideei buruzko politika eta programa espezifikoak bultzatzea eta horien jarraipena egitea.***

Ekintza	2021	2022	2023	2024
<b>A39</b> Bi urtean behin nazioarteko biltzar bat egitea giza eskubideen defentsa, babes eta berme eraginkorrari buruz -2022. urtean biltzarra XXI. mendeko adierazpen-askatasunaren erronkei buruzkoa izango da-		X		X
<b>A40</b> "Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak behin-behinean babesteko euskal programa" sustatzen jarraitzea -eta, oso bereziki, 2021. urtean, programak hamar urte beteko baititu-	X	X	X	X
<b>A41</b> 2030 Agendako lehentasunen euskal programako "Indarkeria prebenitzeko eta bakea babesteko euskal kasuaren ikaskuntzak" proiektuan lankidetzan aritzea		X	X	X

<b>A42</b> Kolonbiako bake-prozesuko ekimen eta programak babesten jarraitzea	X	X	X	X
<b>A43</b> Giza eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Ordezkaritzarekin, Europako Kontseiluarekin eta Estatu Iberoamerikarren Erakundearekin lankidetzak estrategikoa garatzea	X	X	X	X

### 11A *Euskadin tratu-berdintasuna areagotzea eta diskriminazioari aurre egitea.*

Ekintza	2021	2022	2023	2024
<b>A44</b> Euskadiko aniztasunari, tratu-berdintasunari eta diskriminazioari buruzko datuak eta txostenak ikertu eta sortu daitezela sustatzea (Ikuspegi)	X	X	X	X
<b>A45</b> Eraberean sarea sustatzea, diskriminazioaren biktimekin egiten duten lanari bereziki erreparatuta	X	X	X	X
<b>A46</b> Gorroto-delituen eta -gertakarien gaineko informazioa biltzen duten euskal erakunde eta eragile sozialen arteko koordinazioa sustatzea	X	X	X	X
<b>A47</b> Euskadin diskriminazioa prebenitzeko eta gizartea sentsibilizatzeko ekintzak egitea	X	X	X	X
<b>A48</b> Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren euskal lege integralaren proiektua egin eta onartzea		X	X	

**12A *Sexu- eta genero-orientazioaren araberako aniztasuna positiboki kudeatzea, eta LGTBI kolektiboaren diskriminazioaren aurka borrokatzea.***

Ekintza	2021	2022	2023	2024
<b>A49</b> Berdinu Zerbitzua eta Berdinu eskola finkatzea	X	X	X	X
<b>A50</b> Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legea eta haren etorkizuneko aldaketa ezarri eta garatzea	X	X	X	X
<b>A51</b> LGTBI kolektiboaren diskriminazioa prebenitzeko, sentsibilizazioa lantzeko eta prestakuntza emateko kanpainak sustatzea	X	X	X	X
<b>A52</b> Zinegoak Bilboko Gaylesbitrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia babesten jarraitzea	X	X	X	X
<b>A53</b> Pertsona transexual edo transgeneroen gaineko ekimen espezifikokoak sustatzea, haurrengan arreta berezia jarrita		X		X
<b>A54</b> Martxoaren 31 (Transgenero Ikusgarritasunaren Nazioarteko Eguna), maiatzaren 17a (LGTBifobiaren kontrako Nazioarteko Eguna) eta ekainaren 28a (LGTB Harrotasunaren Nazioarteko Eguna) ospatzea	X	X	X	X

**13A *Kulturako, arrazazko eta jatorri etnikozko aniztasuna positiboki kudeatzea, eta diskriminazioaren aurka borrokatzea.***

Ekintza	2021	2022	2023	2024
<b>A55</b> Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia 2021-2023 diseinatu eta ezartzea, ijitoen elkarteekin lankidetzan	X	X	X	X
<b>A56</b> Ijito herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako kontseilua eta haren batzorde iraunkorra gidatu eta dinamizatzea	X	X	X	X

<b>A57</b> Ijito herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako kontseiluan emakumezko ijitoen eta ijito gazteen partaidetza bermatzea	X	X	X	X
<b>A58</b> Azaroaren 16a ospatzea, Ijito Herriaren Euskadiko Eguna	X	X	X	X
<b>A59</b> Immigrazio eta Asilo Zuzendaritzarekin koordinazioan, arraza edo kulturaren ziozko diskriminazioaren kontra borrokatzeko eta sentsibilizatzeko ekintzak sustatu eta ezartzea		X	X	X
<b>A60</b> Martxoaren 21a ospatzea (Arrazismoaren kontrako Nazioarteko Eguna)	X	X	X	X

#### 14A *Erljio-aniztasuna positiboki kudeatzea, eta erlijio-arrazoiengatiko diskriminazioaren aurka borrokatzea.*

Ekintza	2021	2022	2023	2024
<b>A61</b> Kultu Lekuen, Zentroen eta Erljio Aniztasunaren Legea onar dadin laguntzea	X			
<b>A62</b> EAEko Erljioen arteko Kontseilua sortzea		X		
<b>A63</b> Erljioen mapa soziologikoa eguneratzea		X		X
<b>A64</b> Modu aktiboan parte hartzea Euskadiko Komunitate Islamikoekiko Lankidetzarako ADOS Batzordean	X	X	X	X
<b>A65</b> Euskadiko erljio-aniztasunari buruzko txostenen bidez euskal erakundeak eta gizartea sentsibilizatzea eta ezagutza sortzea		X	X	X

**15A Adinaren ziozko aniztasuna positiboki kudeatzea, eta pertsonanagusien, umeen eta nerabeen diskriminazioaren aurka borrokatzea.**

Ekintza	2021	2022	2023	2024
<b>A66</b> Planaren esparruan sustatzen diren aniztasunari buruzko txostenetan adinaren aldagaia eta ikuspegia txertatzea		X	X	X

**16A Aniztasun funtzionala positiboki kudeatzea, eta diskriminazioaren aurka borrokatzea.**

Ekintza	2021	2022	2023	2024
<b>A67</b> Planaren esparruan sustatzen diren aniztasunari buruzko txostenetan aniztasun funtzionalaren aldagaia eta ikuspegia txertatzea		X	X	X

**Planaren kudeaketa, koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa. Gardentasuna bermatu eta kontuak ematea.**

Ekintza	2021	2022	2023	2024
<b>A68</b> Plana sailartean, erakundeartean eta maila publiko-sozialean era egokian koordinatzen dela bermatzea	X	X	X	X
<b>A69</b> Planaren urteko jarraipena egiteko txostena idaztea		X	X	X
<b>A70</b> Planaren azken ebaluazioa eskatzea				X

